


Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko maiatzaren 14a

IV. urtea • 155. zenbakia • DOAN BANATZEKO



GRACIELA ATENCIO / MEXIKOKO KAZETARIA
"Ciudad Juarezko emakumeen aurkako holokaustoa normalizat hartzen du gizarteak" /9

Goienka2a
 Lehengo trenaren gaineko erakusketa Antzuolan

ASTEKO GAIA: EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEAREN BI ALDEAK

A-1: batzuen onura, besteen kaltea

Eibar-Gasteiz autobideak hainbat albiste eman ditu egunotan. Ibarrean, Eskoriatzako Udalak eta kaltetuek osatutako komisiok batzarra egingo du Foru Aldundiarekin datorren astean, Udalak aurkeztutako alegazioen gainean erantzuna jasotzeko. Eskoriatzak eskatu dio Aldundiari ingurumenaren beste azterketa bat egiteko.

Bestetik, lanek aurrera zihozaz en espero bezala, astelehenean eraikuntza sektoreko greba hasi zen arte. Foru Aldundiak onartzen du greba honek, luze irauten badu, eragina izango duela egutegian. Hori Gipuzkoan; Araban, ordea, grebarik deitu ez dutenez, lanak oraingo astean hasi dira. /2-3

- *Alegazioen gaineko erantzuna jasoko du Eskoriatzak laster*
- *Gipuzkoako grebak lanak geldiarazi ditu; Araban, hasi berri dira*



ENEKO AZKARATE

Eraikuntza arloko ia langile guztiak, greban

Debagoieneko eraikuntza sektoreko langileen %95 greban daude. Gaur, egubakoitza, bosgarren greba eguna dute, eta sindikatuen esanetan luze joko du lanuzteak, enpresaburuen eta langileen ikuspuntuak mutur banatan daudelako. Astean barrena pikete informatiboak egin dituzte. Goiko irudia, esaterako, martitzenean Bergaran ateratakoa da, eta greban dauden eta lanean ziharduten langileen arteko eztabaida erakusten du. Eguaztenean, bestalde, istiluak izan ziren, piketeek autobideko lanak geldiarazi egin zituztelako. Ertzaintzak 50 bat langile identifikatu zituen. /4



ARABAN, LEHEN HARRIA A-1 autobideko lanak eguaztenean hasi ziren Araban. Bi zatitan eraikiko dituzte Arabako 14,3 kilometroak: lehena, hasi berri dena, mugan hasi eta Lukuraino joango da (7,5 km). Han, N-240 errepidearekin bat egingo du. 75 milioi euroko aurrekontua du. Bi errei izango ditu noranzko bakoitzak, eta bi tunel: Arlabangoa (Gipuzkoak egingo duena) eta Lukukoa (620 m). Bigarren zatia, Luku-Etxabarri-Ibiña, idazteke dago. Etxabarrin, N-622 errepidearekin (Gasteiz-Altube-Bilbo) bat egingo du. Lotura eginda dago. Bi zatiak 2007an bukatuko dituzte.

Indonesiako altzariak


Erdi-prezioan!

URRETXUN
 Udaberri kanpaina
 (maiatzaren 3tik uztailaren 18ra)

Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak

Orduetgia:
 10:00etatik 13:00etara eta
 17:00etatik 20:00etara
 (asteleheneetik zapatara)
 eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)

943 72 53 26
www.lba-antic.com



A-1 autobidearen alde argi eta ilunak

Azpiegitura garrantzitsua izango da, baina hainbat debagoiendar kaltetuko ditu

LEIRE KORTABARRIA

Eibar-Gasteiz autobidea hemendik hiru urtera zabalduko dute. Izan ere, zatirik handiena egiteko dago. Tarte batzuetan, proiektua bera onarpen fasean dago oraindik. Baina autobide hori albiste askoren sorleku da oraingoz. Ez da gutxiagorako; Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek esan dute “erronka handia, baina baita onura handia ere” izango dela autobidea; eta EAEko azpiegiturarik garrantzitsuenetako bat izango da.

Alde batetik, Eskoriatzako udal ordezkariak eta kaltetuek Eskoriatza-Arlaban tartearen gaineko batzarra izango dute Aldundiarekin datorren astean; bestetik, eraikuntzako grebak gelditu egin ditu autobideko lan guztiak egunotan Gipuzkoan; eta azkenik, Araban, eguaztenean jarri zen hango zatiko lehen harria. Arabako tartea mugatik Etxabarriraino iritsiko da.

ESKORIATZARRAK, HASERRE

Eskoriatzarrak haserre daude Aldundiko Errepide Sailaren proiektua ikusi eta gero, eta alegazioak aurkeztu dizkiete proiektuari. Eskara garrantzitsua da ingurumen azterketa berri bat egitea.

Euren argumentua honakoa da: ingurumen arloko lege baten arabera, “proiektu baten edozein aldaketa edo handitze egiten denean, ingurumenari eragina neurtzeko prozedura aplikatu beharko dela”. Udal Ingurumen Batzordearen esanetan, “proiektua nabarmen aldatu da jatorrikoaren aldean. Aldaketa horien adibide dira: ordainleku berri baten eraikuntza; nekazal eta abeltzainendako balio handiko lursailak erabiltzea, eta erabilitako lur hedadura handiagoa izatea; aldi bateko lur erabilpenak; hondakindegien bolumen handiagoa, eta eskola publikoendako kaltea”.

Tirabira horren beste kapitulu bat datorren astean idatziko da: Eskoriatzako komisioak eta Aldundiak batzarra egingo dute. Bi aldeek jarrera ona azaldu dute. Komisioak dio Diputazioak “hainbat puntu begiratze modukoak” direla azaldu diola. Errepide Sailak esan du lurrari “ahalik eta eragin txi-



Eskoriatzako kaltetuek protesta ekitaldia egin zuten Donostian. 40 bat lagun bildu ziren Koldo Mitxelena.

ARGAZKI PRESS

kiena” egiten saiatuko direla. “Hala ere, ez da ahaztu behar autobide bat autobide bat dela”, ohartarazten dute.


Hala ere, Foru Aldundiaren hasierako jarrera ez dirudi ingurumen azterketa berri bat egitearen aldekoa denik: esan du pro-

zedura guztiak legearen arabera egin direla, eta mota honetako proiektu konplexuak “beti daudela aldaketak egitera zabalik”, diseinua idazten denetik onartu arte. Une honetan, Eskoriatzatik Arlabanerako tartearen proiektua onarpen fasean dago.


ESKORIATZA-ARLABAN, KONPLEXUENA

Fase horrek, baina, ez du luze iraungo. Aldundiko Errepide Sailak hil bukaeran esleitu nahi du Eskoriatza-Arlaban tartea, eta egin beharreko proiektu aldaketek “ez dute epe hori atzeratuko”, Sail horren esanetan.

Izan ere, tarte hori A-1 autobideko konplexuena da. “Gipuzkoan eta, batik bat, Debagoienan egiten diren azpiegitura guztiak dira konplexuak, orografia bihurria dela-eta”, dio Diputazioak. Baldintza horiek eragin dute 3,3 kilometroko tunela —



NAIARA ERRASTI



NAIARA ERRASTI

Diputazioak eta herritarrek ez dute Mazmela berdin ikusten

Eskoriatzako kaltetuek egindako fotomuntaketa hauek adierazten dute Mazmela auzoa zelan geratuko litzatekeen Diputazioaren diseinuak aurrera eginez gero (ezkerrean) edo herritarren proposamena onartuz gero (eskuman).

Aldundiak aurreikusten du zortzi hektareatan ordainlekua, zerbitzugune bat eta horiendako babes-horma eraikitzea, ezkerreko irudian ikusten den moduan. Besteak beste, ustiategi bat eta ehunka urte dituzten 50 bat haritz galduko dira. Horren

harira, kaltetuek diote diseinu hori ez zegoela 1997ko hasierako proiektuan. Eskoriatzarren proposamena, kalte hori txikiagotzeko, honakoa da: tarte hori zubi bidez egitea, eta lursailtarako pasoa ez galarazteko, hor zutaberik ez ipintzea.

EAEko luzeena—eraikitzea, tar-
te horretan, hain zuzen. 205 milioi
eurorakin, autobideko aurre-
kontu altuena du, eta Euskal
Herriko eta Estatuko sei erai-
kuntza enpresa elkarte aurkez-
tu dira lehiaketara, “sektoreko
onenak”, dio Diputazioak. Tarte
horrek badu beste berezitasun
bat: epeak zorrotz beteko direla
ziurtatuko du Aldundiak, atze-
rean egun bakoitzeko 200.000
euro inguruko isunak ezarriko
dizkio-eta eraikitzaileari.

ERAIKUNTZA SEKTOREKO GREBA

Beste arazorik ere izaten ari da
egunotan Eibar-Gasteiz autobide-
dearen inguruan. Aldundiak zero
askotako isunekin egin diezaie-
ke aurka eraikuntza enpresen
ohiturei, baina, langileen greba
baten aurrean, “beste edozein
enpresa bezalakoak gara”, onar-
tzen du. Gipuzkoko eraikuntza
grebak %95eko inguruko jarrai-
pena du, eta horrek atzerapenak
ekar ditzake lanetan.

Horrez gain, egutegiak agin-
dutakoa betetzen doa. Ibilbide
osoa, Gipuzkoan eta Araban, zapi
alditan egingo dute; Maltzaga-
Bergara tartea zabalik dago aben-
dutik, eta 8.000 auto pasatzen
dira bertatik egunero. Autobidea
bukatuta dagoenean, Foru Aldun-
diak aurreikusten du 18.600era
igotzea erabilpen maila. Autobi-
de osoarena, bestetik, 18.800 ibil-
gailukoa izango dela uste dute.
Ordaindu beharreko tarifak mar-
txoan eguneratu zituzten: 75 zen-
timo dira Bergaratik Maltzaga-
ra; 3,05 euro Zarautzera; eta 4,10,
Donostiaraino.

Beste tarteei dagokienez, Ara-
bako zatiaren lehenengo harria
eguztenez ipini zuten. Hori bi
zatitan eraikiko dute. Bergara
hegoa eta Arrasate lotzen dituen
zatia udaberriari zabalduko dute;
Bergara iparraldetik hegoaldera
doan tartea uztailean egongo da
erabiltzeko gertu; honenbestez,
Arrasate iparraldetik Eskoria-
tzara doan zatia, Eskoriatzatik
Arlabaneraino doana, eta Ara-
bako bigarren zatia falta dira
hasteko.

*Eskoriatza-Arlaban
tartearen gainean
negoziatuko dute
datorren astean*

*Arabako zatiko
lanak eguztenez
hasi ziren; 2007an
bukatu dira*

*Egunotako
eraikuntza grebak
atzerapenak eragin
ditzake lanetan*

PEDRO LASAGABASTER / KALTETUA

“Kaleko jendea orain konturatu da eurek ere kalteak izango dituztela”

Pedro Lasagabaster lur-
jabea Eskoriatzako kal-
tetuen bozeramailea da.
Arazo honek “konponbide
errazik ez duela” onartu digu.

**Zelan eragiten dizu zuri A-1-
aren proiektuak?**

Foru Aldundiak hainbat
aldaketa egin zituen 1997ko
diseinuan; tartean, Mazmela
auzoan ordainleku bat eta atse-
den gune bat egokitzea. Horre-
tarako, nire lursail batzuen zor-
tzi hektarearen jabegoa kendu-
ko lidakete, eta baita beste
hainbat eremu ere: balio handi-
ko aresti bat, hainbat zelai...

**Zenbat lagunek osatzen
duzue kaltetuen taldea?**

60 herritarretik gora gaude.
Gehienak lurjabeak gara, baina
ez guztiak. Autobideak herria-
ren 7-8 bat kilometro zeharka-
tuko ditu, eta lau elizateri egin-
go dio kalte: Apotzaga, Mazme-
la, Zarimutz eta Marin. Hori
dela-eta, herrian kaltetu asko
dago, baina guztiak ez gaude
batzordean.


Batez ere, kaleko jendearen
falta sumatzen dut. Oso kaletar
gutxi egin dute bat kaltetu
moduan, eta gehienak lurjabeak
dira baita. Nik uste dut kaleko
jendea orain dela gutxi kontu-
ratu dela alegazioak aurkezteko
modua ere bazutela eurek, eta
kalteak ere jasango dituztela.

**Kalean bizi direnek zein
kalte igarriko dituzte, bada?**

Alde batetik, zarata handia;
eta begira ematen duen sentsa-
zioa ere. Autobidea Herriko Pla-
zatic, erdigunetik... argi ikusi
ahal izango da. Horrez gain, ikas-
tetxeek ere kalteak izango dituz-
te: zarata, hautsa, gasak...

**Hasi zarete dagoeneko ara-
zorik edo kalterik sumatzen?**

Bai, tirabirak izan dira Foru
Aldundiko teknikarien eta base-
rritarren artean. Izan ere, lur-
sailtan sartu izan dira, neur-
ketak egin eta markak ipintze-
ko... eta legeak dio proiektua
onartu arte, ezin dela desjabe-
tzerik egin eta lur horietan ezin
direla sartu. Aldundiak onartu
digu hori akats bat izan zela.



*“Ikastetxeek ere
kalteak izango
dituzte: zarata,
hautsa, gasak...”*

**Hainbat aldaketa egitea
eskatzen diozue Foru Aldun-
diari...**

Bai. Puntu asko ez ditugu
egoki ikusten, eta hainbat pro-

posamen egin dizkiegu: zehar-
kako pasabideak ipintzea; lanak
egiten ari diren artean, laneta-
ra joateko beste mota bateko
bideak proposatzen ditugu, logi-
koagoak, kalte gutxiago egingo
dutenak; bestalde, tunelendako
luzapen artifizialak egitea, mutu-
rrak baserrietatik gertu gera-
tzen direlako eta horrek zarata
arazoak sortuko dizkietelako
baserriarroi... Oro har, egin-
dako ingurumen azterketak, bai
eta LKSk egindako azterketa
batek, esaten dute herriak oso
kalte larria jasoko duela.

**Besterik eskatu diozue
Diputazioari?**

Bai. Kaltea, handiagoa edo
txikiagoa, egin egingo denez,
neurri konpentsatzaileak plan-
teatu ditugu: auzoetara teleko-
munikazio kableak eramatea;
auzo lokalendako dirulaguntzak;
Apotzagan ur araztegi txiki berri
bat eraikitzea... Izan ere, auzo-
etako kaltetu asko ez dira lur
jabeak, baina, lanek irauten
duten artean, horiek ere kalte
handiak izango dituzte.

Autobidea zelan dagoen, tartez tarte

MALTZAGA-BERGARA IPARRA

Joan den abenduan zabaldu
zuten. Larreategiko zubi-
bideko ezkerreko erreia
itxita dago. Hori azaroan
zabalduko dute.

Zati honek 7,2 kilometro
ditu, horietatik 4,5 tunele-
tik. 8.000 ibilgailu dabilta
egunero; autobide osoa
zabaltzen dutenean, aurrei-
kusten da 18.600era igotzea
kopurua.

BERGARA IPARRA-HEGOA

Tarte honetako lanak hasita
daude, eta aurreikusten da
uztailean bukatzea. 4,4 kilo-
metroko zati honek 76,5
milioiko aurrekontua du.
1,4 kilometroko tunel bat,
San Martzialgoa, eta bi zubi-
bide, Ipiñarrikoa eta
Uberakoa, izango ditu;
ordainlekua Zaldumendin
ipiniko dute. Aurreikusten
da 14.900 ibilgailu pasatzea
egunero.

BERGARA HEGOA-ARRASATE

Lanak aurrera doaz tarte
honetan, eta datorren uda-
berriari erabiltzeko gertu
egongo da. Hauxe izango da
zirkulazio handieneko tar-
tea, egunero 22.500 ibilgailu
pasatuko dira-eta bertatik,
Aldundiaren arabera. 3,5
kilometro izango ditu, eta
71,47 milioi inbertitu dituz-
te tarte honetan. Bi tunel
izango ditu: Aristikoa (300



Oñatiko zubibideak (230 m.) Ikastaundiko tunelekin bat egiten du.



Ipiñarriko zubi-bidea, Bergarako tartean. Uztailean zabalduko dute tarte hori.

m.) eta Ikastaundikoa (1,2
km.), eta bi zubi-bide:
Zaldumendikoa (70 m.) eta
Oñatikoa (230 m.)
Ordainlekua Epelen jarriko
dute, eta Zaldumendin eta
Epelen loturagune bana
izango dira.

ARRASATE IPARRA-ESKORIATZA

Datorren urtean hasiko dira
lanak, eta 2007ko uztailean
bukatu. 6,3 kilometro luze
izango da. Bi tunel izango
dira: Basagoitikoa (250 m.)
eta Izurietakoa (260 m.), eta
bi zubi-bide, Basagoitikoa
(250 m.) eta Arbizelaikoa
(560 m.). Aldundiak uste du
18.400 ibilgailu inguruk era-
biliko dutela egunero.

ESKORIATZA-ARLABAN

10,48 kilometroko tarte hau
autobideko garestiena da,
205 milioi euroko aurrekon-
tuarekin. Lanak hil bukae-
ran esleitu eta aurten hasi-
ko dira. EAEko tunelik luze-
ena izango da tarte honetan:
Arlabangoa, 3,3 kilometro-
koa. 18.800 ibilgailu pasatu-
ko dira handik egunero.

ARABAKO TARTEA

Bi zatitan eraikiko dituzte
14,3 kilometrook; Arlaban-
Luku tarteko lanak eguzte-
nez hasi ziren, 75 milioiko
aurrekontuarekin. Bigarren
tartea, Lukutik Etxabarri-
Ibiñara arte luzatuko da.



Arrate Elkororen hilketaren azuzian jardun zuten ertzainetako batzuek testigantza eman zuten egunean.

Arrate Elkororen ustezko hiltzaileak bere aurkako karguak ukatu ditu

Hil aurretik, Arrate Elkorok akusatua izena oihukatu zuen

AMAIA LEIBAR

Elgetako tabako saltzaile Arrate Elkorok Telleriaren hilketari argitzeko epaiketaren barruan, hainbat testigantza jaso dira oraingo astean. Ustezko hiltzaile gisa Aitor Mendikute elgetarra dago auziperatua, eta ukatu egin ditu bere aurkako karguak.

Astelehenean, hilak 10, hasi zen Arrate Elkorok Telleriaren elgetarraren heriotza argitzeko epaiketa, Donostiako Justizia Epaitegian. Ustezko hiltzailea, Aitor Mendikute, epai aretoan egon da deklarazio-hartze egun hauetan. Guztira, bederatzita pertsonak osatzen dute zinpeko epaimahaia.

Biktimaren familiak eta Elgetako Udalak osatzen dute akusazioa. Bai akusazio partikularrak eta bai herri-akusazioak hilketa eta bortxazko lapurreta egozten dizkiote akusatuari. Bi akusazioek 30 urteko kartzela zigorra eskatzen dute. Bestalde, Fiskaltzak eskatu du akusatuari debekatzea bost urtean Elgetara joatea. Horrez gain, hilda-

koaren senarrari 150.000 euroko kalte-ordaina eta bikotearen alabei 75.000 euroko kalte-ordaina ematea eskatu du. Defentsak, aldiz, absoluzioa aldarrikatu du.

"MENDIKUTE, MENDIKUTE! AI, AMA!"

2002ko maiatzaren 9an Arrate Elkorok Elgetako tabako saltzailea labanaz hiltzea egozten zaio Aitor Mendikuteri. Epaiketaren lehen egunean, Mendikutek ukatu egin zituen bere aurkako karguak eta ez zien erantzun nahi izan akusazioaren abokatuen galderei. Hilketak gertatu zen egunean tabakoa bakarrik erosi zuela adierazi zuen. Defentsak ere akusatua errugabetasuna aldarrikatu zuen, buruko gaitza duela alegatuta.

Aitor Mendikutek ez zuen inoiz Arrate Elkorok mehatxatu, baina honek beldurra zion

Arrate Elkororen senitateko deklaratu zuten bigarren sesioan, martitzenean: senarrak eta bi alabek. Mendikutek ez zuela Arrate mehatxatu, baina honek beldurra ziola deklaratu zuten hirurek.

Hotel Elgetako jabeak ere bere testigantza eman du. Hilketak egunean bizi izandakoa azaldu zuen; Arrate hotelean sartu zenean, "Mendikute, Mendikute! Ai, ama! Ai, ama!" esan zuela eta gero lurrera erori zela adierazi du hoteleko jabeak.

TRASTORNO PSIKOLOGIKOAK

Martuteneko medikuak bere testigantza baieztatu zuen Mendikutek trastorno psikologikoak dituela. Bere hitzetan, kartzelan lan egiten duen psikiatrickonfirmatu egin du diagnostikoa. 1987a ezker akusatua psikiatrickonfirmatu egin du. Bestalde, medikuak esandakoaren arabera, Mendikutek neskalaguna du kartzelan; harreman horrek akusatua kartzelan duen portaera aldarazi egin ei du.

UNEDek 18 ikastaro eskainiko ditu udako ikastaroetan

Gizarte, osasun eta psikopedagogia arloko gaiak dira

OIHANA ELORZA

Bergarako UNEDek udako ikastaroak antolatu ditu hirugarren aldiz. Ikastaroak, tailerrak eta mintegiak emango dituzte ekainetik uztaila bitartean gai askotariko adituek. Ekainaren 5ean amaitzen da izenemate epea.

Ekainaren 22tik uztailaren 2ra bitartean egingo ditu UNEDek aurtengo udako ikastaroak. Hirugarren urtez antolatu ditu.

Ikastaroak, tailerrak eta mintegiak egingo dituzte. Guztira, 18 gai landuko dituzte, hiru arlotako gaiak: gizarte zientzien arloa, osasunarena eta psikopedagogia arloa. Ikastaro laburrena sei ordukoa da eta luzeena, berriz, 20koa. Ekainaren 5ean amaitzen da izenemate epea.

EDONORENDAKO IKASTAROAK

Xabier Amurizak, esaterako, bertsoak egiten erakutsiko du; Iñaki Perurenak herri kirolaren garrantzia aztertuko du; Lola Garcia irakasleak, haurren hezkuntza eta jolasak lotuko ditu; Fernando Morillo idazlea idazteari buruz mintzatuko da eta Juanjo Olaizolak trenaren iragana, oraina eta geroa aztertuko ditu. Adibide batzuk baino ez dira hauek.

Ikastaro laburrena sei ordukoa da eta luzeena, 20koa. Edonorendako dira



Mikel Irizar, Vicente Huizi, Manuel Cainzos eta Jose Luis Esnal ikastaroen aurkezpenean.

ULMA
ULMA C y E, Koop. Elk.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DE IA

EGUNA: 2004ko maiatzaren 21a
ORDUA: 15:30ean lehen deialdia eta 15:45ean bigarrena
TOKIA: KURSAAL Elkarguneko Auditorioa - Donostia

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARTZARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2003KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2004KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2003KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. 2004. URTERAKO AUDITORETZA-ENTITATEA IZENDATZEA
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEN FONDON (HKSF) ERABILERA
7. EKONOMI ARAUBIDEN ESTATUTU-XEDAPENAK
8. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK
9. ESTATUTU SOZIALEN 31, 52, 59, 62 ETA 64. ARTIKULUAK ALDATZEA
10. KOOPERATIBAKO BARNE-ARAUDIAREN 40 ETA 46. ARTIKULUAK ALDATZEA
11. KAPITAL SOZIALERAKO 5.500.000 EUROKO BORONDATEZKO EKARPEN ONARTZEA
12. 19.000.000 EURO ARTEKO MENDEKO EKARPEN FINAN-TZARIOA KONTRATATZEA
13. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
14. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
16. GALDERAK ETA ESKAERAK

2004ko maiatza

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Estatutu Sozialen eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketari buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.



amaia corrales
maite aldaz

Psikologia kontsulta

- Familia, bikote eta bakarkako terapia
- Diagnostiko txostena
- Umeak, gazteak eta helduak

San Anton 10, 2. solairua. Oñati 943 78 01 55
Usandizaga 29, 1-B. Donostia 656 90 49 50



Garbiketetan
profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behe
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58



ENKO AZKARATE

Laplacette, Otegi, Diez eta Larralde, Olaso dorrean egindako aurkezpenaren.

Elkarrizketa bultzatzeko dei egin du Bergarako Ekimenak

Egoera politiko berria hartzen du aintzat proposamenak

GOIENKARIA

Abenduan Bergarako Proposamena aurkeztu zutenek beste bigarren bat aurkeztu zuten martitzenean, aurrekoa egin zuten toki berean: Bergarako Olaso dorrean.

Lehenengo proposamen haren ondoren, oihartzun politiko handiko hainbat berri gertatu direla eta —Espainiako hauteskundeak eta gobernu aldaketa, Frantziako hauteskunde kantonalek eta erregionaletan eskumak izandako porrota, eta azken Aberri Egunean Nazio Eztatidaguneak egindako proposamena—, egoera berrira egokitutako proposamena egin zieten gizarte eta politika eragileei.

Hain justu ere, Bergarako Ekimenaren sustatzaileek gatazkaren konponbidearen lehentasuna azpimarratu zuten, eta konponbidea lortzeko behar diren ezauzgarri eta baldintza batzuk azaldu zituzten. Gainera, Espainiako eta Frantziako estatuekin "elkarrizketa eta negoziazio esparru bat" sustatzeko konpromisoa hartu zuten.

Gatazkaren konponbiderako elkarrizketaren beharra azpimarratzen dute

Adostasunik lortu ezean, luze joko du eraikuntzako langileen grebak

Debagoieneran lau mila lagun inguruk egiten dute lan eraikuntzan

GORKA ETXABE

Debagoieneko eraikuntzako langileen %90ek erantzun diote eraikuntzako Gipuzkoako grebari. A-1 autobideko lanak geldiarazi egin zituzten, eta istiluak izan ziren; Ertzaintzak 50 bat lagun identifikatu zituen. Piketeak ere egon dira.

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitu dute eraikuntzako Gipuzkoako greba mugagabea, eta erantzun sendoa izan du.

Debagoieneko eraikuntzako langileen %90ek erantzun diote grebari, eta ibarreko eraikuntza

lan gehienak gelditu daude. Horien artean, A-1 autobideko lanak. Bergaran, Ondartza baserri pareko biribilunetik gertu dauden bulegoetara sartu ziren eraikuntzako langileak, eta bertako beharginak atera zituzten grebara. Herri-zaingo Sailak aditzera eman duenez, piketeetako langileek makina bat eta bulegoetako materiala apurtu zituzten. Ertzaintzak 50 bat langile identifikatu zituen.

LAU MILA LANGILE

Debagoieneran ez dago eraikuntza enpresa handirik; Mauricio Arregi eta Artzamendi dira handienak. Hala ere, Gipuzkoako

obrarik garrantzitsuenetakoak Debarroan daudela gaineratu dute sindikatuek. Hori dela eta, Euskadiko eraikuntza enpresa nagusiak gure ibarrean ari dira lanean azkenaldian. Guztira, lau mila langile inguruk egiten dute lan eraikuntzan ibarrean. Gipuzkoan, 12.000-13.000 inguruk.

Besteak beste, soldataren %4,42ko igoera eskatzen dute langileak, eta lanaldia urtero 16 ordu murriztea. Gainera, dietak kobratzeko aukera aldarrikatzen dute, eta etxetik lanerako bidaiaren denbora ordaintzeko eskatzen diote patronalari. Grebak luze jo dezake.

DEBAGOIENERAN LABUR

Jende asko Jesus Larrañagaren hileta elizkizunean

Kooperatiba eta politika munduko jende asko izan zen zapatuan, Jesus Larrañagaren aldeko hiletan. Arrasaten izan ziren, besteak beste, Sabin Intxaurrea eta Joseba Azkarraga sailburuak, Jose Ramon Beloki EAJko diputatua Madrilen, Roman Sudupe, Jesus Catania MCCOko presidentea eta Pablo Mongelos, Fagor Etxetresnen gerentea. Ulgor lantegia abiarazi zuen Jesus Larrañagak, 1956an.

Lau debagoiendar daude Herritarren Zerrendan

Herritarren Zerrendak Hegoaldean aurkeztu duen hautagaien zerrendan, lau debagoiendar daude: Bergarako Enara Mingez abokatua, Ramon Loiti langilea eta Gasteizen bizi den Mila Larrañaga, kooperatibako langilea. Laugarrena Manex Agirre aramaioarra da. Debagoieneran 2.380 sinadura batu dituzte HZren alde. Euskal Herri osoan, berriz, 49.000 sinadura.

'Panti'-ri harrera jendetsua egin zioten Bergaran

Xabier Oregi *Panti*-k 17 urte egin ditu preso Espainiako hainbat espetxetan, eta aurretik, beste bost urte egin zituen erbesteetan. Zapatuan utzi zuten aske Murtziako espetxean, eta Gatzagan zain zeukan auto-ilararekin batera heldu zen Bergarara, 22 urteren ostean. Herriko plazan batutakoek txalo zaparradarekin hartu zuten *Panti*. Hark bertotan erantzun zien. Datorren zapatuan omenduko dute.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

**Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria**

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



Nondik igaroko da eskualdea lotuko duen tranbia?

Erdi-erditik zeharkatuko ditu Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara

OIHANA ELORZA

Eusko Jaurlaritzak egin du tranbiaren lehen trazatuaren proiektua. Orain, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako udalek euren iritzia eman diote. Jaurlaritzaren erantzuna jaso ondoren, jendaurrean jarriko dituzte tranbiaren planoak.

Lehenengo Vasco-Navarro trenaren trenbidea aprobetxatu nahi du Eusko Jaurlaritzak tranbia egiteko, eta badirudi zati gehienetan bide horretatik pasatuko dela. Edozelan ere, arazoak daude puntu askotan, tranbiak herrien erdialdeak zeharkatuko dituelako, eta kale batzuk estuegiak direlako tranbia, autoak eta oinezkoak sartzeko.

Bergaran, esate baterako, kanposantuaren parean hasiko da tranbia, eta herri guztia erdi-erditik zeharkatu ostean, Elorregi aldera joango da Labegaraieta auzoan barrena. Udalak trazatu hau Bergara iparraldeko industrialderaino luzatzea nahi du, eta tranbiak herri barruko abiadura izan dezala Labegaraieta auzora

heldu arte. Arazo larrienak, baina, Ibargarai kalearen estutasuna eta Gabiria aldea dira. Torrekuan geltokia izango du tranbiak, eta hortik Ozaeta auzora joateko bidea non egingo den da arazoa. Hala, litekeena da Gabiria aldean beste tunel bat egin beharra egotea.

Elorregiko bidegurutzea gainetik pasako du ziurrenik tranbiak, eta Arrasatera helduko da. Gipuzkoa etorbidea ere estuegia da, eta kale horretako alde batean dauden paretak, hormak, mugitzea izan daiteke irtenbidea. Hala ere, lan hori ez dela erraza izango diote teknikariek. Bestalde, Jaurlaritzaren proiektuak tunel berri bat egitea aurreikusten du Euskadiko Kutxa eta Lagun Aroak

dauden gune horretan. Tranbiak unibertsitatearen aurrean izango du geltokia, eta hortik Aretxabaletarako errepidea hartzeko, tunela egin beharko da. Udalak, aldiz, tranbia Arimazubi etxegunearen ondotik pasatzea proposatzen du, Arrasate pasealekutik, Alfontso VIII.a kalean barrena, Aretxabaletarantz. Horrela, San Andres auzoak ere gertuago izango du tranbia. Azertu beharreko beste puntu bat ospitalearen eta tranbiaren arteko lotura da.

Aretxabaletan, Durana kale-tik, herriaren erditik pasatzea proposatzen du Jaurlaritzak, eta ziurrenik horrelaxe izango da. Beste aukera batzuk ere azertu ditu Udalak, baina ez du irtenbide hoberik aurkitzen.

Programaren arabera, udalen iritzia jaso ondoren, urte bukeran onartuko dira behin betiko planoak, eta datorren urtean hasiko dira lanak. Hauteskundeen urtea izango da, gainera. Tranbiak goitik izango du indarra eta errepide gainean ibiliko da. Lanak bi urte baino gutxiagoan bukatuko dituztela uste dute. 15 minutuko maiztasuna izango du.

*Bergarako Gabiria
aldean eta
Arrasateko
unibertsitatean,
arazo handienak*

Tranbia Deba ibarrean

LEHENENGO LANAK

Jaurlaritzak proposatzen du lanak Aretxabaletan hasia. Handik, Arrasatek igaroko eta, Elorregiko bidegurutzean, Bergarara joko dute. Izan ere, Aretxabaletatik Bergararaino izango dira, aurreikuspenen arabera, bidaiari gehien.



TRANBIA-AUTOBUSA

Oñati, Eskoriatza, Gatzaga, Antzuola, Aramaio eta Elgeta autobusez lotuko dituzte tranbiaren ibilbidearekin. Autobus txartelek tranbiarendako ere balioko dute. Autobusak 20 minuturo irteneko dira.

DEBAGOIENETIK KANPO

Debagoienari emango diote lehentasuna. Bergararik, Soroluzera eta Maltzagara joko du tranbiak; handik, Debara (tren) eta, azkenik, Mutrikura (autobusez).



— Orain egingo duten zatia
— Hurrengo egingo dutena (tren) eta, azkenik, Mutrikura (autobusez).
- - - Lanzaderak (autobusa)
..... Trenea

Zatia	Luzera	Geltokiak	Denb.	Ezaugarriak
Bergara	2.845 m.	6	10,5 min.	Luzera 18,6 m
Bergara-Arrasate	6.849 m.	1	6,2 min.	Zabalera 2,3 m
Arrasate	3.006 m.	5	10,7 min.	Jarlekuak 30-40
Arrasate-Aretxabaleta	1.861 m.	1	1,9 min.	Bidaiariak 131-134
Aretxabaleta	1.328 m.	3	5,0 min.	Pisua 16,7 tona
GUZTIRA	15.889 m.	16	35,3 min.	

INAKI ITURBE



ARETXABALETA

Durana kaletik pasatuko da tranbia

Hiru geltoki izango ditu tranbiak Aretxabaletan: Aramaio bidegurutzean, Mitarten eta Loramendi kalearen bidegurutzean, trazatuaren bukaeran. Arrasatek dator, eta Santutxu gunetik Otalora kalean sartuko da. Andra Mari parrokiaren parean, Durana kalea hartuko du, eta herriaren erditik joango da, Mitarte eta Araba ibilbidean barrena.



ARRASATE

Ez da ospitale paretik pasatuko

Musakolatik, Gipuzkoako etorbidean barrena joango da tranbia eta Gelma parean, oinezkoendako bidea egingo dute ospitalea eta tranbia lotzeko. Eroskin, Musakolan, postetxearen parean, Monterron kultura etxearen parean, unibertsitatearen ondoan eta San Andres auzoan izango ditu geltokiak, ziurrenik.



BERGARA

Ibargarai kale hasiera estuegia da

Ibargarai kalea estuegia da bi noranzkoetan doan tranbia, autoak eta oinezkoak ibiltzeko. Aukera bat izan daiteke tranbiaren noranzkoak kale ezberdinetatik pasatzea. Adibidez, bide bat Zurra-dero kale-tik eta beste noranzkoa Santa Marina elizaren paretik. Bide batez, erreka gainean egin nahi den zubia ez zen egin beharrik egongo.

CLINICA DENTAL BERGARA



FINANTZAKETA:
3 HILABETE ETA 5 URTE ARTEKOA

- Odontologia orokorra
- Inplanteak
- Protesiak
- Hertz-estetika
- Periodontzia **BERRIA**

ASEGURUAK

Ipresa
Sanitas
DKV/Previasa
Asisa
Azkaran
Aresa
Sermesa
Pakea
Grupo Eroski
La Previsora

Ibersalud
Aegón
Asepeyo
Fraternidad
Fremap

BERRIAK:
Adeslas
Allianz

OÑATI Frantziako lagunak herriko familietan hartu nahi ditu Udalak

Datorren uztailean beteko dira bost urte Oñati eta Frantziako Chateaubernard herria senidetu egin zirenetik. Data hori ospatzeko, 60 pertsona inguru etorriko dira Oñatira uztailearen 16tik 18ra, eta lagun hauek Oñatiko familietan ostatu hartzea nahi du Udalak, elkarren berri izateko. Asteburu horretarako egitaraua prestatzen ari da orain Udala. Frantziako lagunak etxean hartu nahi dituen herritarrak kultura etxean eman dezake izena. Europa, Amerika eta Afrikako sei herrirekin dago senidetuta Oñati. /O.E.

ANTZUOLA Badihardugu ahozko ondarea jasotzen hasiko da datozen asteotan

Antzuolako ahozko ondarea jasotzeko hitzarmena sinatu zuten orain dela hilabete batzuk Udalak eta Badiharduguk.

Lan horren helburua da dokumentu eta artxi-boetan jasota ez dauden hainbat historia txiki jasotzea. Horretarako, hainbat herritar elkarrizketatuko dute; Itziar Alberdi eibartarrak, hain zuzen ere, egingo ditu elkarrizketak. XX. mende hasieran jaio-tako herritarrak izango dira protagonista; garai hartako bizimodua, pentsaerak, lan egiteko era... jaso nahi dituzte. /A.I.

ELGETA Maiatzaren 17an irekiko da haur eskolan matrikulazio epea

Irailean irekiko ditu atekak 0 eta 2 urte arteko umeendako haur eskolak. Gehienez hamar ume egon ahal izango dira bertan, eta hiru nahikoa dira haur eskola zabaldu ahal izateko. Baina guztira zenbat izango diren jakitea komeni denez, matrikulazio epea aurki zabalduko dute. Gurasoek maiatzaren 17tik aurrera joan beharko dute udaletxera izena ematera. Behin izena eman ostean, gurasoak irakasleekin elkartuko dira, besteak beste, ordutegia eta egutegia finkatzeko. /I.A.



ARAMAIO

Gazte ugari elkartu eta gazteen taldea antolatu dute: ATGA

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada (ATGA) izena ipini diote Aramaion sortu berri den taldeari. 50 bat gazte elkartu dira talde horretan. Oro har, euren helburua da euskara lantzea eta herriko gazteen arteko harremana sendotzea. Horrez gainera, herriko elkarteekin harremana sendotzeko ere ahalegin berezia egingo dute. Otxandioko gazte taldearen eta Arrasateko gaztetxearen laguntza izan dute taldea sortzeko, eta horregatik eskerrak eman gura dizkiete. ATGA taldeak dagoeneko badu zeregina: herriko jaiak antolatzea. Buru-belarri dabilta horretan. Baina lanean jarduteko eta batzarrak egiteko lokala behar dute, taldean horrenbeste gazte bat egitearen ondorioz, oraingoa txiki geratu zaie-eta. Horixe izango da Udalarari egingo dioten hurrengo eskaera. /U.M.

BERGARA

Gaixotasun psikikoak dituzten 1.460 lagun daude Debagoieneran

Debagoieneko Agifes elkarteak buruko osasunaren gainera sentsibilizazio kanpainari ekin dio. Gaixo psikikoen eta haien familiartekoen elkarteak urtarriean zabaldu zuten Debagoieneko bulegoa, Bergarako Irizar jauregian. Buruko gaixotasunak jasaten dituzten pertsonen eta beraien familiartekoen bizitza kalitatea hobetzea du helburu Agifesei.

Beraiek emandako datuen arabera, Debagoieneko Buruko Osasun Zentroan ibarreko 1.460 lagun inguru zaintzen dituzte gaur egun. Kopuru horri, sare ofizialetik kanpo dauden gaixoak gehitu behar zaizkio. Agifesei kideen ustetan, datu hauek errealitatearen gordintasuna erakusten dute.

Ibarrean errehabilitazio psikosozialerako zentro bat aldarrikatzen dute eta, era berean, erakunde-aldetik tutoretzako etxebizitzak eta etxez etxeko laguntza psikiko eta hezi-

tzaila eskuratzea beharrezkoa ikusten dute. Debagoieneko udal guztiekin kolaborazio hitzarmenak sinatu nahi dituzte.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Besteak beste, etxean gaixo psikikoren bat duten senideei aholkularitza zerbitzua eskaintzen die Agifesei. Elkartera hurbiltzeko interesa duten guztientako ateak zabalik dituzte Bergaran, Irizar jauregiko lehen solairuan. Euren telefono zenbakia hau duzue: 943 76 98 56. Edozein argibidetarako bergara@agifes.org posta elektronikoa ere erabil dezakezue. /E.M.

Zertzelada

Elkartera hurbiltzeko interesa duten guztientako ateak zabalik dituzte elkartekoek, Bergarako Irizar jauregian.

ARRASATE

Herriko presoek egoera salatuko dute bihar eta datorren astean

Bihar, zapatua, salaketa eguna izango da Arrasaten. Jesus Mari Zabarte *Garratz* preso arrasatearrak 20 urte egin ditu kartzelan eta Jon Agirre aramaioarrak 23. Gainera, Etxerat elkarteak esandakoaren arabera, bi preso horiek beteta dituzte zigorraren hiru laurdenak. Beraz, legediaren arabera, kalean beharko lukete. Hori

gogora ekarriko dute eta, oro har, herriko presoek egoera salatuko dute bihar eta datorren astean.

Bihar, zapatua, 19:00etan manifestazioa egingo dute eta horren ondoren, ekitaldia, gaztetxean. Eta datorren astean, besteak beste, amnistiaren gainera berbaldia izango da, eguaztenean. /U.M.



Presoen senideek prentsurrekoa egin zuten martitzenean.

ARETXABAILETA Aretxabaletarren %43k erabiltzen du euskara kalean egunero

SEI kultura elkarteak euskararen erabilerari dago-kion kale neurketa egin zuten 2003ko azaroan Aretxabaletan. Orduan jasotako emaitzen berri eman du orain, eta horien arabera, %43k erabiltzen du euskara kalean. Zazpigarren aldiz egin dute neurketa herrian, eta 2001. eta 2003. urteen artean 12 puntu jaitsi da euskararen erabilerara. Haurrak eta gazteak dira gehien erabiltzen dutenak (%58), eta helduak eta adinokoak gutxien (%33). Bestalde, ludotekan eta futbol zelai inguruetan egiten dute gehien euskaraz. /M.A.

ESKORIATZA

ETBko zuzendariak banatu dizkie diplomak HUHEZIKO aurtengo ikasleei

Gaur, egubakoitza, banatu dizkiete diplomak Humanitateak-Enpresa ikasketak egin dituzten 4. promozioiko ikasleei. Ekitaldian, Bingen Zupiria ETBko zuzendariak hartu du parte, eta berarekin batera izan dira Juanjo Otaño ikasketen zuzendaria, Jose Antonio Mendikute fakultateko dekanoa eta Iñaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea. Bergarako abesbatzak egin die lagun.

Aurten Euskal Herriko 66 ikaslek jaso dituzte diplomak; gehienak debagoien-darrak izan dira. /M.A.

GATZAGA

Arlaban eta Eskoriatza arteko autobidea egiteko lehiaketa, zabalik

Gipuzkoako Azpiegituren Agentziak, BIDEGIK, Arlaban eta Eskoriatzako iparraren arteko autobideko lanak egiteko lehiaketa deialdia egin du aste honetan. Lanok egiteko 39 hilabete izango ditu hautatutako enpresa eraikitzaileak, eta ia 6 milioi euroko aurrekontua.

Enpresa eraikitzaileek ekainaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren proiektuak BIDEGIK Donostian duen bulegoan. Eskaintzak, ostera, ekainaren 24an irekiko dituzte. /M.A.

Zabalik

MIKEL
LIZARRALDE

Istorioak

Ingelesak bezala, euskarak badu gaztelaniari ihes egiten dion ezaugarri aberats bat. H handiko Historiak eta istorioak ez dute zertan bat etorri; bata gertaeren esparruan kokatzen den bitartean, bestea irudimenaren emaitza delako. Arazoa sortzen da istorioa, fikzioa, Historiaren jantzi handinahiekin mozorrotuta aurkezten digutenean.

Zinemak askotan egin du gertaera historikoak desitxuratu eta bere interesen menpe jartzeko bide hori. XX. mendearen hasieran egiten zuen eta gaur egun ere egiten du, zuzentasun politikoaren aitzakiarekin manipulazioa itxuraz leundu duen arren.

Orain dela gutxi, Texas Mexikotik banandu zuen El Alamoko setioari buruzko film berri bat estreinatu dute. Berririo esan digute han hil ziren soldaduak "askatasunaren aldeko heroiak" izan zirela, eta paradisuaren pare jarri dute XIX. mendeko Texas "libre" hura. Haien hankapean zeuden esklabo beltz eta indiarrei galdetu beharko genieke, baina ez dut uste iritzi berekoak izango zirenik. Beste behin, Historiaren gainetik jarri dute istorioa. Okerrena da H handia gehituta aurkezten dutela.

Historia desitxuratzeko beste modu batzuk ere badaude, nahiz eta behar bada hain mingarriak ez izan. Aurreko batean, Julio Medemen *Vacas* eman zuen ETBk gaztelania hutsean. Bigarren Gerra Karlistaren eta Gerra Zibilaren artean, eta Gipuzkoa "sakoneko" baserri bitan dago girotua istorioa, baina filmean euskaraz entzun daitekeen hitz bakarretakoa *Txalgorri* da; behi baten izena alegia. Beste guztia Cervantesen hizkuntzan dago.

Texasko herritarrei Aznarren spanglish-a bezain arrotza egiten zait.

Gutunak

Jon Agirre eta Jesus Mari Zabarte etxera!

Gaur egun 700 dira euskal preso politikoaren kolektiboa osatzen duten gure senide eta lagunak, sei estatu desberdineko 79 espetxetan zehar sakabanatuak egonik, eta aipatzekoa, horietako 8 soilik daudela Euskal Herriko espetxeetan.

Euskal preso politikoei bizi duten egoera inoiz baino bortitz eta jasangaitzena dela salatu beharrean aurkitzen gara. Sakabanaketaren kopurua izugarria da, ehunka kilometro egin behar ditugu gure senideekin une labur eta xamur bat igarotzeko., honek suposatzen digun gastu ekonomiko eta emozionala itzela izanik, eta nola ez, errepideetako arriskua; aurten soilik, 17 izan direlako espetxeetarako bidaietan izandako senide eta lagunak istripuak, 54 izanik zauritutakoak. Legeak euskal presoek Euskal Herriko espetxeetan egon behar dutela esan arren, hori ez da betetzen. Alderdi politikoei ez dute sakabanaketaren aurrean dagokien jarrera hartzen. Noiz eman behar diote bukaera egoera honi? Zenbat istripu, hildako gehiago izan behar dira?

Baina ez da hori gure senide presoekin ematen den bidegabekeria bakarria; izan ere, ia 100 dira zigorraren 3/4ak beteta izan arren, oraindik espetxean jarraitzen dutenak. Eta egoera hori ere benetan larria da Arrasaten. Preso dauden gure 17 senide eta lagunak Espainia eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta daudelako, eta horietako lauk 3/4ak beteta dituzte: Jon Agirrek, J. M. Zabartek, J. G. Urizarrek eta J. I. Gaztañaga.

Jon Agirrek, aurtengo maiatzaren 11n, 23 urte beteko ditu espetxean eta J. M. Zabartek, ekainaren 25ean, 20 urte. Biek aspaldi bete zuten zigorraren 3/4ak; Jonek 1996an eta Jesus Marik 1999an. Hori horrela izanik, zergatik ez daude etxean? Zenbat denbora gehiago pasa behar dute gugandik ehunka kilometrora? Izan ere, biak Andaluzian daudela gogorarazi beharra dago, Malagan eta Jaenen hurrenez hurren.

Kolektiboaren etapa guztiak, gogorrenak bizi izan dituztela esan genezake. Inoiz ez dira Euskal Herriko espetxeetan izan, bien senideek pairatuz dispertsioaren muturreko egoerak, biak izan direlako irletan kartzelaturik, Tenerife eta Salto del Negrón alegia. Denbora honetan guztian, torturak, jipoiak, isolamendua, gose-greba oso gogorak, denetarik jasan behar izan dute. Jon eta Jesus Mariren senide eta lagunak egoera hau amaitu dadila exijitu nahi dugu, eta etxean, gurekin behar ditugula lau haitzera zabaldu! Ez dago egoera honekin jarraitzeko inolako arrazoirik, ezta ere horrenbesteko sufrimendurekin. Etxean ez egotearen arrazoi bakarria mendekuz eta gorrotuz beteriko espetxe politika delako.

Euskal Herriak sufritzen duen gatazka politikoa amaitu dadila desio dugu, eta horretarako ezinbestekoa da euskal errepresaliatu guztien eskubideak bermatuak izatea.

Ezin idatzi honi amaiera eman, azken hilabeteetan espetxeetan bizi izandako erasoak salatu gabe. Inoiz ez da erraza izan presoentzat espetxeko bizimodua, baina martxoaren 11ko gertakariaren ostean, kolektiboak jasan beharrekoa ulertezina eta guztiz salatzen da. Muntaiak politikoa honen ostean, gure senideen aurkako erasoak zilegizkoak bilakatu dira. Labaneko eraso saiakera Albaceten, eta honen ondorioz bertan aurkitzen diren euskal presoek 32 eguneko gose greba eraman zuten aurrera egoera hori salatu eta beraien eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzeko. Hori bizi behar izan du gure herritarra den Txus Goikoetxeak. Hone-taz gain, mehatxuak, irainak, jipoiak eta isolamendua izan dira, besteak beste, bizi izan dutena. Guztiz onartezina!

Amaitzeko, Jon eta Jesus Marik pairatzen duten egoera salatzen asmoz, hilaren 15ean ekitaldi desberdinak eramango dira aurrera Arrasaten, baina betiere gainontzeko euskal errepresaliatu guztiak gogoa izanda. Horregatik, bertan parte hartzera animatu nahi ditugu herritar guztiak, etxean behar dutelako, aspaldi bete zituztela zigorren 3/4ak, eta beraien eskubidea

aldarrikatzea, exijitzea denon lana izateaz gain, guztiz zilegizkoa delako! Etxean nahi eta behar ditugulako!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

Kurtzebarriko Irakur Maratoia, bikain


Maiatzaren 29an, Kurtzebarri eskolako XIII. Literatur Asteari bukaera eman zitzaion Irakur Maratoiarekin. Gurasook badakigu irakur zaletasuna bultzatzeko aste bat ez dela nahikoa eta ikusten dugu eskolan ikasturte osoan, gure seme-alabek motibazio saioak eta jarraipena izaten dutela; hala ere, idazleekin, bertsolariekin... solasaldiak izatea; guraso eta lagunei beraien lanak erakusteko aukera izatea oso garrantzitsua dela uste dugu literatura, liburuak... atsegin handiz gaztetxoaren eguneroko bizitzan txertatzeko. Irakur Maratoira bueltatuz esan beharra dago Kurtzebarri Eskolako patentea daraman ekintza hau dastatzeko aukera izan ez duzuenok hurrengo urtean ez galtzeko. Aurten gai nagusia poesia izan da eta ekitaldiari bukaera emateko eskolan lantzen diren hiru hizkuntzetan gaiarekin loturiko irakurgaiak entzuteko aukera izan dugu, deklamaturik, kantatuta... Baina harrigarriena dena etxeko produktuekin egina izan dela; kanpotik, ordainduta, inor ekarri gabe. Ezin da lerro batzuetan adierazi nolakoa izan zen, beraz, parte-hartzaileei zorionak emateko eta eskola komunitate honetako kide izatearekin oso harro sentitzen garela adierazteko aprobetxatuko ditugu.

Berriz ere zorionak, eta ea gure seme-alabak kutsatzen dituzuen ilusio eta bizitasun horrekin.

GURASO TALDE BAT
Aretxabaleta

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko AzkarateERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de MendizabalADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantazu AranaSAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia MundiñanoPRODUKZIOA
Iban ArantzabalTESTUEN ZUZENKETA
Sergio AzkarateHARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Mexikoko Ciudad Juarez hirian 400 emakume hil dituzte azken hamar urteotan, eta 4.000 baino gehiago desagertuta daude. Graciela Atencio kazetariak hango bizimoduaren gainean egin du berba Arrasaten.

OIHANA ELORZA

Zer ari da gertatzen Ciudad Juarez hirian?

Holokaustoa. Jendeak uste du holokaustoaren biktimak milaka kontatzen direla, baina holokaustoetan gertatzen den prozesu bera jarraitzen dute Ciudad Juarezaren ere.

Azken hamar urte hauetan, 400 emakume hil dituzte eta beste 4.000 desagertuta daude. Oso ondo pentsatutako, antolatutako eta egindako hilketak dira, sistemakoak eta bata bestearen ondoren eginak, seriean.

Emakumeak dira biktimak guztiak?

Bai, guztiak. 12 eta 20 urte bitarteko neskek, emakumeak, dira gehienak. Pobreak dira, txiroak, eta beste arraza edo etnia batekoak, mestizoak. Gehienak *makila*-ko langileak dira. Hau da, Europa eta Amerikako etxe ezagun handietarako lanean dihardutenak. Gehienak, gainera, hirira lan bila eta etorkizun bila datozen gazteak dira, eta askok ez dute beren gorpua erreklamatu duen inor.

Nola hiltzen dituzte?

Gehienak zelaigune batean agertzen dira, zaborra izango balira bezala, bularretakoa ahoan edo lepoan dutela eta kule-roak belaunetaraino jaitsita dituztela. Hil aurretik bortxatu egiten dituzte, batek baino gehiagok, gainera. Torturatu ere egiten dituzte; batzuei sexu organoak moztu dizkiete. Azkenik, ito egiten dituzte, eta arnas faltagatik hiltzen dira.

Hau guztiau egiteko jende asko dago. Batzuek biktimak, neskak, bilatzen dituzte, beste batzuek zaindu egiten dituzte bahituta daudela. Sofistikazio handiz prestatzen dituzte hilketak.

Ez dute erantzulerik aurkitu hamar urtean?

Ez, eta horrek esan nahi du pertsona garrantzitsu eta ukiezinak direla hilketak hauen erantzuleak. Boteretik gertu dauden pertsonak, alegia.

15 bide ezberdin jarraitu dituzte erantzuleak aurkitzeko, baina guztietan sendoena inoiz aztertu nahi izan ez dutena da, kazetari eta herritar askok salatzen duguna. Bide honek Mexiko eta AEBetako mugan diharduten pertsona garrantzitsuengana garamatza, mugako alde bietan monopolioen jabeak direnengana, botere ekonomiko eta politikotik gertu dauden pertsonengana. Ciudad Juarezaren droga asko dago, eta narkotrafikotik bizi dira asko eta asko. Gainera, dirua garbitzeko erabiltzen da hiria. Beraz, hilketak hauek ere giro horretan sartzen dira.

Baina zergatik hiltzen dituzte?

Emakumeak direlako, besterik gabe. Kazetarion, kriminologoaren eta soziologoaren iritziz, erritualen barruan sartzen diren hilketak dira. Gizon hauek boterea dute lagun, eta gazte hauek torturatu eta hiltzen dituzte.

Baina kontu hau ez da asmatutako kontu bat; frogak daude hau horrela dela esateko. Frogak daude, esaten dutenak desagertutako emakume batzuk poliziaren autora sartzen ikusi zituztela azkenekoz. FBIk frogak klasifikatuak ditu eta pertso-



OIHANA ELORZA

Graciela Atencio

MEXIKOKO KAZETARIA

“Emakumearen aurkako holokaustoa normaltzat hartzen du gizarteak”

CIUDAD JUAREZKO EMAKUMEEN HILKETAK

“Bide sendoenak dio hilketen erantzuleak boteretik hurbil dauden pertsonak direla. Gobernuak ez du inoiz ezer egin hilketak argitzeko”

EMAKUMEAREN EGOERA PATRIARKATUAN

“Emakumea indarra erabiliz kikiltzen duela erakutsi du beti gizonak gizarte guztietan, baita egun ere; femizidioa da”

na hauen izen-abizenak jasotzen dituzten txostenak ere badaude. Horietako batzuk desagertu egin dira Mexikoko inteligentzia zerbitzutik.

Eta zein azalpen ematen dizkiete familiakoei?

Euren alabak emagalduek zirela, mundu osoan hiltzen dituztela emakumeak, eta antzerako azalpenak ematen dizkiete. Gainera, salaketa jarri nahi duten senitatekoak mehatxatu egiten dituzte, poliziak jarraitu egiten ditu. Amnistia Internazio-

nal erakundeak jasotzen du Mexikoko gobernuak erru bikoitza duela; hilketak ez ikertu eta ez argitzeagatik, eta senitatekoak horrela tratatzeagatik.

Inoiz ez da errudunik eta epaiketarik egon?

Bai. 1993an agertu zen lehen gorpua. Bi urte geroago, *Egiptoarra* ezizeneko gizon bat atxilotu zuten. Baina hilketak ez ziren amaitu. Handik denbora batera, autobus gidari batzuk atxilotu zituzten, *Egiptoarra*-ren aginduak jarraitzen zituz-

tela esanaz. Eta orduan ere ez ziren erailketak amaitu. Atxilotuek neska batzuk beraiek hil zituztela aitortu zuten, baina tortura eta mehatxuarekin. Atxilotuak gehiago ere egin ziren, baina hilketek jarraitzen dute.

Hamar urte hauetan gobernu aldaketa ere izan da Mexikon. Zer egiten du gobernuak?

70 urtean PRI alderdiak agindu du, eta orain PAN alderdia dago gobernuan. Baina ez bata ez besteak, ezta federalak ezta estatalak ere, ez dute inoiz hiltzailea aintzat hartzen. Inoiz ez zaie barkamena eskatu senitatekoari. Inoiz ez da onartu femizidioa denik; emakumeak direlako hiltzen dituztela, erabili eta zaborretara botatzeko erabiltzen dituztela emakumeak.

Neska asko egun argiz desagertu dira. Ez du inoiz inork ezer ikusi?

Duela hiru urte, zortzi gorpu agertu ziren batera hiriaren erdian, erakunde garrantzitsu baten aurrean. Norbaitek zerbait ikusi behar izan zuen orduan. Emakume asko autobusean doazela edo kalean daudela bahitzen dituzte, egunez. Jende askok ikusi du zer gertatzen den, baina isilik daude. Horren harira, gizartea ere hilketak hauen konplizea da. Badaude hilketak hauek salatzen dituztenak eta argibideak eskatzen dituztenak, baina beldur handia dago Ciudad Juarezaren, eta jendeak ez du ezer esan nahi. Hitz egiteak heriotza ekar diezaiekeela ondo dakite.

Eta zer diote iritzia ematen duten gutxi horiek?

Feminista batzuek diote gizon hauek ahal dutelako egiten dutela hau. Ez bakarrik emakumeak ezer balio ez duelako, gizonak berak duen boterea erakutsi nahi diolako gizarteari. Euredako, femizidioa ikuskizuna da. Emakume batzuk hiltzen dituzte, gainontzeko guztiei beldurra sartzeko.

Mexiko oso herrialde matxista eta misoginoa da. Hil dituzten 400 emakume hauetatik asko, %33 inguru, genero indarkeriaren erruz hil dira, beraien bikotekideek hil dituzte. Emakumearen aurkako erasoak egunero gertatzen dira Ciudad Juarezaren; beraz, emakumea hiltzea *normala* dela uste du gizarteak. Eta hori da larriena, jendeak hori onartzea.

Eta nola jarraitzen dituzte gertaera hauek komunikabideek?

Hilketak hauek ez dira dagoeneko egunkarietako azalpena agertzen. Are gehiago, Mexikoko prentsa idatziko kazetari ezagun batek gai honi horrenbeste buelta ez emateko eskatu du duela gutxi. Munduko bazter guztietan hiltzen dituztela emakumeak.

Inguruko herrietan ere emakumeak hiltzen hasi dira orain, ezta?

Bai. Ciudad Juarezaren ez dira emakumeen hiltzaileak zigortzen, inpunitatea erabatekoa da. Hau ikusita, orain, Chihuahua estatuko hiriburuan, hamar emakume hil dituzte, aurrekoak hil dituzten era berean. Eta ez dakigu hiltzaileak berberak diren edo ez.

Guatemalan, 400 emakume hiltzen dituzte urtean. Emakumearen aurkako holokaustoa *normaltzat* ikusi du gizarte osoak urtetan, eta oraindik ere horrelaxe gertatzen da. Zer gertatzen da Palestinako emakumeekin? Munduan, 55.000 emakume hiltzen omen dituzte urtero. Emakumeak direlako, eta indarra erabiliz kikiltu gaituztela esan nahi digutelako hiltzen dituzte.

Nazioarteko erakundearen indarra da konponbidea?

Ciudad Juarezko hilketak gutxitu egin dira nazioarteko gobernuaren kanpoko erakundeek egindako salaketak direla medio. Talde hauen lana garrantzitsua da, batez ere horrelakoak egunero gertatzen direla gogorarazteko.

Zapatuan egingo dute Otala Zelaiko krosa

Otala Zelain bertan hasiko da, eta ibilbidea aurreko urteetako baino luzeagoa izango da

OIHANA ELORZA

Sorrerako tokira bueltatuko da aurten Aretxabaletako kros ezaguna. Otala Zelain bertan hasi eta amaituko da aurten, eta ibilbidea orain artekoa baino luzeagoa izango da; bi kilometro luzeagoa. Krosean parte hartzeko izena zapatuan eman behar da, Otala Zelain bertan.

Zapatuan egingo dute aurtengo Aretxabaletako Otala Zelaiko krosa. 26.a izango da. Orain arte, maiatzeko lehen domekan egin izan dute, baina aurten Otala Zelai egunean bertan egitea erabaki dute, maiatzaren hirugarren domekan. Ea horrela herritar gehiagok parte hartzen duen. Horixe baita helburu nagusia, herritarren parte-hartzea bultzatzea.

Egunaz gain, krosaren ibilbidea ere aldatu egin dute aurten. Orain arte ez bezala, aurtengo krosa Otala Zelain bertan hasi eta amaituko da. Beraz, ibilbidea ere luzeagoa izango da; bi kilometro luzeagoa. Guztira, 8.140 metro izango ditu. Gazteek eta emakumezkoek buelta bakarria egingo dute eta gizonezko seniorrek,



Herriko jendeak parte hartzea gura dute antolatzaileek.

berriz, bi buelta emango dituzte. Beraz, 15.110 metro egin beharko dituzte.

Gizonezko seniorren herri krosa 11:00etan hasiko da eta izenematea 09:30etik 10:30ak arte

egongo da zabalik. Bost euro ordaindu beharko dute. Zenbaki-banaketa ere lasterketari hasiera ematen zaion leku berean izango da. Gazteen lasterketa, berriz, 10:00etan hasiko da, Ota-

la Zelai parean. Beraz, oraindik ez dago jakiterik zenbat korrikalarik hartuko duten parte, izena egunean bertan eman behar baita. Hala ere, jende askok parte hartuko duela uste dute antolatzaile-

leek, baina batez ere herritarrek parte hartzea gura dute. Izan ere, beste herrietan antolatzen diren maratobietan herritar askok hartzen dute parte, eta herriko krosean ere parte hartzea gura dute antolatzaileek.

SARIAK

Gizonezko zein emakumezkoetan, hiru kategoria egongo dira guztira: seniorrak, juniorrak eta beteteranoak. Maila bakoitzeko lehen hiru sailkatuek saria jasoko dute, diru-saria. Hauez gain, kategoria bakoitzeko lehen aretxabaletarrak ere 25 euroko saria eskuratuko du eta lasterketa amaieran, parte-hartzaile guztien artean sari bonoak zozketatuko dituzte. Korrikalari guztiek lasterketako kamiseta bana jasoko dute.

Astehenekoko Goiienkaria-k Otala Zelaiko krosa norik irabazi duen, parte-hartzaileen sailkapena, iritziak, argazkiak eta gertatzen den guztia jasoko du. Baita krosaz gain egun horretarako antolatu diren gainontzeko ekitaldiak ere. Izan ere, Otala Zelaiko erromeria egunerako, paella lehiaketa, animalien jokoak eta gehiago ere antolatu dituzte.

ekintzaile

txekintek

**ZUREKIN BENTURAN, ZURE IDEIA ENPRESARIALEAN
LAGUNTZEN ZAITUGU**

Idea enpresarial bat baduzu eta ez badakizu nondik hasi... idea garatzen eta martxan jartzen lagunduko dizugu. Proiektu enpresarialentzat, TXEKIN programa. Oinarri teknologikoa edota berritzailea duten industriaren eta industriari loturiko zerbitzuen sektoreko proiektuentzat, TXEKINTEK-EKINTZAILE.

Industriaren eta industriari loturiko zerbitzuen sektoreko proiektuak

Informazioa eta eskaerak:

BIC BERRILAN: 943 000 999 - 943 820 606 - www.bicberrilan.com

SAIOLAN: 943 712 072 - www.saiolan.com

Proiektu enpresarialak

Informazioa eta eskaerak:

www.txekin.net - Tel: 943 48 22 87

www.gipuzkoa.net/ikasmina



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

SPRI



Kirolabur

AUKEA SARIK/ARRASATE

Isa Casado atleta da iazko Arrasateko kirolaririk onena. Horixe lerabaki du AUKEA kirol erakundeak. Talde onenaren saria Mondra futbol taldeak jasoko du eta aipamen berezia Arantzazu Zubiarrentzat izango da, Arrasateko gimnasia taldeko entrenatzailearentzat. Isa Casado gogor ibili da mendian eta baita eskien gainean ere. Euskadiko kopan bigarren gelditu zen. Mondra taldea preferente mailara igo zen iaz eta Arantzazu Zubiak gimnasia egin ditu 19 urte baino gehiago. Sarituek domekan jasoko dituzte sariak, Musakolako kiroldegian.

ARRANTZA/OÑATI

Herriko arrantza txapelketa egingo da Oñatin, domekan. Zuazola zubian hasiko da txapelketa, 09:00etan, eta urtero bezala, Arantzazu errekan jokatu da, Torreauzo eta Olate arteko erreka tartean. 12:00ak arte egongo da arrantzan egiteko aukera. Bi maila egongo dira: gazteena eta helduena. Sari nagusiez gain, parte hartzen duten guztientzat egongo dira sariak. Arrantza txapelketa Oñatiko Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatuta dute.

PILOTA/ANTZUOLA

Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak bigarren mailako eskuz bana-kako finala jokatu du zapatuan, Iruñeko Labriten, Galartza V.aren aurka. Bigarren mailan jokatu duen hirugarren finala izango da Berraondorentzat. Orain dela hiru urte jokatu zuen lehena, eta txapela eskuratu zuen. Lehen mailan denbora laburra egin ondoren, bigarren mailara jaitsi zen berriro, eta finalera heldu zen orduan ere. Ez zion, ordea, Peñagarikanori irabazi.



Galartza V.aren aurka jokatu du finala Berraondok.



Denboraldiko azken derbia izango da.

Bergara-Mondra derbia jokatu dute zapatuan Agorrosinen

OIHANA ELORZA

Bergara eta Mondrak derbia jokatu dute zapatuan, Bergarako Agorrosin futbol zelaian.

Bi taldeen arteko norgehiagoka 17:00etan hasiko da, eta denboraldi honetako preferente mailako azken derbia izango da. Sailkapen nagusian, zortzi punturen aldea dute Mondra eta Bergarak.

ALOÑA ETA UDA

Aloña Mendik eta UDAn etxean jokatu zuten azken asteburuan,

beraz, kanpoan aritzea tokatzen zaie oraingoan. Oñatiarrak Hernanira joango dira. Hernaniko taldea azken aurrekoa da sailkapen orokorrean. Aretxabaletarrek, aldiz, Zestoan jokatu dute partidua.

Denboraldia amaitzeko hiru partidu gelditzen direnean, UDA eta Mondra dira Debagoieneko talderik onenak; laugarren eta bosgarren postuan daude, hurrenez hurren, 54 punturekin. Aloña Mendik sei gutxiago ditu, eta zortzi gutxiago Bergarak.

Nartxi Saralegi aizkolaria omenduko dute Antzuolan bihar

O.E.

Zapatuan, San Isidro egunean, Nartxi Saralegi aizkolaria omenduko dute Antzuolan.

Herri kirolak antolatuta dituzte biharko Antzuolako pilotalekuan. 17:15ean hasiko dira eta puntako aizkolaria eta harri-jasotzaileek hartuko dute parte. Adibidez, Goenatxo-Izeta eta Ostolaza harri-jasotzaileak egongo dira. Bakoitzak 125 kiloko harri biritu-bila jaso beharko du hiru minutuan, eta beste hiru minutuan, 138 kiloko harri kubikoa. Egurra moztzen, berriz, Peñagarikano eta Anjel Arrospide ariko dira. Hauekin batera, Ruben Saralegi eta Julen Aranberri aizkolaria gazteek ere saioa egingo dute.

Nartxi Saralegi aizkolaria 1999an hil zen, auto istripuan, eta bihar, zapatua, haren omenezko herri kirolak egingo dira Antzuolan.

SAN ISIDRO

Herri kirolaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izango dira bihar Antzuolan, San Isidro egunean. Goizean goizetik, ganadu feria eta produktuen salmenta egingo da herriko plazan. Trekutz elkartearen salda egongo da, eta trikitilariak kalean gora eta behera.



LKS, KOOP. ELK. OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

EGUNA: 2004ko maiatzaren 21a
ORDUA: 15:30ean lehenengo deialdia eta 16:00etan bigarren deialdia
TOKIA: ekitaldi aretoa. LK-3, Arrasate

AZTERGAIK

- 2003ko maiatzaren 16ko Ohiko Batzar Nagusiko aktaren onarpenari buruzko txostena eta aurtengo Batzarreko akta onartzeko bazkideak izendatzea.
- 2003ko Ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Kontuak eta Kudeaketa Txostena aztertzea eta onartzea.
- Soberakin Garbiak banatzea.
- Heziketako eta Sustapeneko Fondoa banatzea.
- Erregimen ekonomikoko xedapen estatutarioak.
- 2004ko Ekitaldirako auditoreak izendatzea.
- Estatutuen arabera Kontseilu Errektorea berritzea.
- Ingeniaritza eta Aholkularitza Elkarketa, Koop. E.ri buruzko informazioa.
- MCCri buruzko informazioa.
- Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko lehendakaria

Arrasate, 2004ko maiatzaren 5a

Sentsazio askatasuna proba ezazu



Besaulkiak eta sofak



Diplomat larruzkoa
953 eurotik aurrera



Windsor larruzkoa 2 plaza
2.705 eurotik aurrera

Plus Sistema™ eksklusiboarekin eta Stressless®-en teknologia aurreratuarekin, besaulkiak eta sofak zure gorputza libre sentiaraziko duten munduko leku bakarrak dira, edozein jarreratan egonda ere. Kolore eta forma gama guztiak aukeran, zure saloiko estilora egokitzen dira, amets egiteko edo zure pentsamenduak aske uzteko gogoko duzun toki bihurtuz.

www.ekornes.es

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



Euskadi geldi ez dadin:

Bay

Euskaldunok Euskadirentzako etorkizun hobeari bai esateko aukera dugu orain. Eta honetan denok gaude ados.

- > **Bai garraio sistema moderno eta gaur-gaurkoari**, energia aurreztu eta ingurumena errespetatzen duenari, gure errepideetako trafikoa arindu eta istripuak gutxitzen dituenari, lurralde eta pertsonak hobeto lotu eta Europara gehiago hurbiltzen gaituenari.
- > **Bai prestazio handiko trenari**, gure ekonomiaren eragile denari eta merkataritza eta salgaien mugimendua azkartzen duenari.
- Bai aurrera egiteari** eta bide lasterretik etorkizun oparago
- > baterantz jotzeari.

Oraitxe dugu Euskal Yari baietz esateko aukera.
Ez dezagun gal aukera hau.



VASCA

Euskadi geldi ez dadin.

aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

EuskoTren

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 14a

Kultura
eta
aisialdia



Maiatzaren
14tik 21era

ANTXUTXUOLA

Antzuolako trenak bidaia berezia
egingo du aste bukaeran...
Hurrengo geltokia: historia eta nostalgia



Vascongados trenak azken bidaia bati ekingo dio asteburu honetan: Antzuolako historiako zati esanguratsu eta bitxi bati, hain zuzen ere.

Izan ere, Antzuolako Udalak tren eta trenbide horren gaineko erakusketa antolatu du, eta asteburu honetan eta datorrenean izango da zabalik, Olaran etxean. Ezagutu zutenek gogoratu eta gazteenek ezagutu ahal izango dute tren zaharra. /14-15 /LEIRE KORTABARRIA

ERDI AROKO I. azoka

ARRASATE 2004

Maiatzak

22-23



Egun osoan kale animazioa,
artisautza postuak, musika,
suge-sorgintzailea,
zetreria...



Erdi Aroko
fantasiaz beteriko
ikuskitun paregabea!

Laguntzailea:



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kultura Saila

HISTORIA/ ANTZUOLAKO TRENAREN INGURUKO ERAKUSKETA

Vascongados trenak, nostalgiara bidean

TREN ZAHARRAREN GAINEKO ERAKUSKETA ZABALDUKO DUTE BIHAR, OLARANEN

LEIRE KORTABARRIA

Antzuolar askok gogoan dute herriko tren eta trenbide zaharra, Vascongados deitzen ziotena herrian. Baina 1971n itxi zuten, beste herritar askok ez dute horren berri askorik. Orain arte: izan ere, Udalak trenaren inguruko erakusketa zabalduko du asteburu honetan.

Trenak 1971ko otsailaren 28an egin zuen azken bidaia. Antzuolar batek bidaia horretako txartelak gordetzen zituen, eta asteburu honetan zabalduko den erakusketan izango dira, beste material askoren artean.

Izan ere, 1889an zerbitzua abian jarri zenetik bertan behera utzi zuten arte, 82 urte geroago, antzuolarrek izan zuten trenaren gaineko materiala eskuratzeko eta gordetzeko aukera, jakin gabe egunen batean herritar batzuen oroitzapenerako eta beste batzuen ikusminerako aitzakia izango zirela. "Herritarrek utzitako materialarekin, bertako ukitua eman ahal izan diegu erakusketari", azaltzen du Jone Larrañaga Antzuolako kultura teknikariak. Argazki asko daude erakusketan, baina baita bestelako material ugari, norbere historiatik aterata: bidaiari baten txartela, langile izandako batek enpresatik jasotako gutun eta nominak, besteak trenbidean aurkitutako geltoki bateko teilak bat...

Ukitu pertsonalena, seguruenik, bi testigantzak emango dute. Udalak ikus-entzunezko bat egin du bi antzuolarren testigantzarekin: bata Agustin Lete da, Lizarran auzoko Laskurain Handikoa. Baserri ondotik pasatzen zen trenak, eta Agustinek horren berri emango digu. Eta bestea, Basaldeko Inurriarri-Garai baserriko Bittori Lezeta. Bion hitzek eta hainbat irudik osatutako bideoa ikusi ahal izango dute erakusketara bisitariak.

Materialaren gehiena, ordea, Azpeitiko Euskal Trenaren Museoa ipini du. Jone Larrañagak dioenez, "dokumentu asko dago: planoak, ur deposituen gaineko dokumentuak, aurrekontuak..." Treneko orratz-zainen antzinako jantziak ere ikusgai izango dira. Erakusketa Olaran etxean izango da asteburu honetan eta datorenean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

ASKORENGAN ERAGINA

Erakusketa honen helburua da trenak ezagutu eta gertutik bizi izan zuten nostalgiara begirada bat eskaintzea, eta belaunaldi gazteei euren herriko historiaren zati bat lehenengoz azaltzea. Udalaren esanetan, jendeak "jakin-min handia" erakutsi du erakusketa aurretik ere. Eta lehen azalpenak emateko, hitzaldia eman zuen Juanjo Olaizola Euskal Tren Museoko zuzendariak egunean.

Izan ere, Vascongados trenak badu bere historia. Lehenengo lokomotorak 1889 urtean lehen txistua bota zuen arren, ordura arte ere gertatu ziren kontaktua merezi duten hainbat pasarte.

Iñigo Ramirez de Okariz Antzuolako kultura zinegotzi eta erakusketako antolatzaileak dioten bezala, "ingeniaritza lan konplexua egin behar izan zuten". Lanak 80ko hamarkadan hasi

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ / ANTOLATZAILEA

"Oso erakusketa polit eta sentimentalak izango da"

Antzuolako Kultura zinegotzia da Iñigo Ramirez de Okariz. Bera izan da erakusketaren bultzatzailea; berak dioenez, "aspaldian buruan nengilaren asmo bat zen, eta iritsi da aurrera ateratzeko unea".

Zer aurkituko dute erakusketara bisitatzen dutenek?


Material mota guztietatik asko: maketak, faroak, argazkiak, dokumentuak, planoak... Oso erakusketa polita eta sentimentalak dela uste du. Herritarrei laguntza eskatu genien, eta ondo erantzun dute; baina erakusketaren zatirik handiena Azpeitiko Euskal Tren Museoa ipini du.

Zerk egiten du berezi Vascongados trenak Antzuolan?

Berez, ez du ezer berezirik: zerbitzu bat ematen zuen linea zen, eta erabilera jaitsi zenean, itxi egin zuten. Baina tren hori itxi zutela urte asko pasa dira, eta erakusketaren helburua da ezagutu ez zuten aditzera ematea.

Zergatik izan zuen erabilpenak gainbehera hori?

Bidaiariendako baino gehiago, merkantziatarako erabiltzen zen; herritarrek eurek diote "oso eragin txikia" izan zuela euren bizitzan. Horren arrazoia da oso deserosoa zela: Bilbo, Donostia eta Frantzia lotzeko egin zuten, baina Antzuolako ibilbidea Zumarragan bukatzen zen, eta han Norteko trenak hartu beharra



zegoen. Gero, Elgoibar-Donostia linea indartzen hasi zirenean etorri zen benetako gainbehera.

Eraikuntza lanek, ordea, horiek bai utzi zutela arrastoa...

1889an bukatu zuten, eta nik uste dut garai hartarako lan faraoikoa izango zela. Langile askok parte hartu zuten. Kontuan hartu behar da oso bide traktua dela, goibehera handiekin: errekek, maldak... daude, eta azpiegitura ikusgarriak eraiki behar izan zituzten.

Kontuiezaguzko trenaren gaineko pasarteren bat...

1893an istripu larri bat gertatu zen. Zazpi lagun hil ziren; tartean, Deustuko alkatea zena. Gertakari hark trenaren historia markatu zuen.

Bestalde, data esanguratsua bat 1929. urtea izan zen: argindarra sartu zen linean, eta lurrunezko lokomotora zaharrak baztertu ahal izan zituzten.



Uzarragako bideko lanak (1957-60), Iturriotz baserri inguruan.

ANTZUOLAKO UDALA



Ganz automotoreak bakarrik edo merkantzia bagoietarako erabiltzen ziren.

ANTZUOLAKO UDALA

Hainbat datu

Trenbideak 8,5 kilometro egiten zituen Antzuolan. Aldapa handiak gainditu behar izan ziren: Aizpekolan sartzen zenean, 250 m. igo behar zituen; punturik altuena, Deskargan, 425 metrokoa zen. Hori dela-eta, lokomotorrek indar handia egin behar izaten zuten bakarrik malda hori igotzeko.

Beste arazo bat bihurgune handi eta oso estuak izan ziren. Gaur egungo trenek 110 metroko erradioak zeharkatzen badituzte, Antzuolan, 60koak zeuden. Eta herrian bakarrik, zortzi tunel behar izan ziren; ibilbidearen 1,3 kilometro tunel azpitik egiten zen. Luzeena Deskargako tunela zen, 587 metrokoa.

Bi geraleku zeuden: Amilletakoa eta Iturriozkoa; eta bi kaxeta: Galartzakoa eta Irala gainekoa, eta bertan trenbideko langile burua eta familia bizi ziren.

ziren. 8,5 kilometroko ibilbidea egiteko, arazo ugari sortzen zituen orografia bihurria gainditu behar zen: aldapa handia, bihurgune asko eta oso estuak, eta tunelak egin beharra: Antzuolan bakarrik, zortzi tunel egin zituzten, guztira 1,3 kilometro. Lan eskerga hori guztia egiteko, langile asko ibili zen: 1888an, 400 langiletik gora izan ziren. Horrela bada, erabilpena baxu samarra izan bazen ere, Vascongados tre-

nak jende askoren bizitzan eragin zuen, batez ere, abian jarri aurretik.

PASARTE ARIN ETA ILUNAK

Lineak ez zituen antzuolarrak bidaiari moduan erakarri, Ramirez de Okarizen esanetan, "deserosoa" zelako. Esaterako, 1960ko apirilaren 11tik maiatzaren 10era bitartean, 1.986 lagunek egin zuten Bergara-Zumarraga ibilbidea; horietatik 297 Antzuolan igo

ziren, eta 75, Amilletan. Trena bera linea handi baten zatia zen, eta Antzuolako ibilbidea Zumarragan bukatzen zen. Bestetik, geralekuak oso urrun zeuden, eta herritarrendako oztopoa zen hori.

Hala ere, jendeak estimua hartu zion trenari: horren eredu, Amilletako geralekuaren erakuntza. Lehenengo, Iturriotzen zegoen geraleku bakarra; baina "antzuolarrek gutuna idatzi zioten Ferrocarriles Vascongados-i,

Amilletan geralekua egin zezatela eskatuz". Baita lortu ere. Pasarte ilunak ere izan ziren trenaren historian: larriena, 1893an Iturriozko geraleku edo *estaziño* inguruan gertatu zen istripua.

Azkenean, erabilpen eskasak eta guretik kanpo egindako beste komunikabide batzuek bere ondorioa izan zuten 1971ko otsailaren 28an, trenaren azken bidaiaren egunean. Egun horretako irudiak daude erakusketan.

L a n b i d e H e z i k e t a



www.arizmendi.ikastola.net

Gizartearen beharretara egokitzen gara.

Gizartearen gaur eguneko ezaugarrietara egokitzen den lanbidea hautatzea garrantzitsua da. Egin zure aukera Arizmendi Ikastolak eskeintzen dizkizun titulazioen artean:

Erdi mailako zikloak:

- Erizaintzako Laguntza Osagarriak
- Arreta Soziosanitarioa

Goi mailako zikloak:

- Ingurumen kimika
- Analisia eta kontrola
- Eraikuntzako Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
- Kirolaren eta Ekintza Fisikoaren Animazioa

Informa zaitez!

902 11 20 25


Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Maiatzak 14-21

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Vascongados tren eta trenbide zaharren** inguruko erakusketa dago zabalik asteburu honetan eta datorrenean, Olanan etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

BERGARA

► **VII. Abdon Juaristi margo lehiaketako** lanen erakusketa dago zabalik Errotalde jauregian hilaren 23ra bitartean.

ESKORIATZA

► **Baratze kritikoa** erakusketa bisitatzeko azken eguna duzue gaur, egubakoitza. Kultura etxean dago zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Arizmendi ikastolak antolatuta du.

OÑATI

► **Ramon Arantzabal** margolari arrasatearraren *Espazioak amets egiteko* erakusketa etzira bitartean dago zabalik kultura etxean, egunero, 18:30-20:30.

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► **Umorezko bakarrizketa** egingo du Matxinek gaur, egubakoitza, Ezkutu tabernan, 22:30ean.

ARRASATE

► **Xaibor Basetxea saioko pertsonaiak** ikuskizuna eskainiko du etzi, Gambrinus tabernan, 01:15ean eta 02:15ean.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **San Isidro eguna** ospatuko dute bihar, zapatua. Ganadu erakustaldia, azoka, kukumarro erakusketa, meza, musika... egongo dira 09:00etan hasita. Aurtengo berritasun nagusia izango da harri-jasotzaile txapelketa, 17:15ean, pilotalekuan. Bestalde, Anelkarrek pintxoak zerbitzatuko ditu Herriko Plazan.

ARETXABALETA

► **Euskararen Eguna** deitu du Loramendi euskara elkarteak biharko. Egun osoan izango dira ekitaldiak herriko kaleetan. Herritar guztiei parte hartzeko deia egiten die Loramendik.

ARRASATE

► **Txokolate jana** antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak gaurko, egubakoitza, Musakolako auzo alkatezian, 18:00etan, auzoko emakume guztiendako.

► **Corazon de Encina elkarteak** bere Kultura Asteko azken egunak ospatuko ditu gaurtik domekara bitartean. Hainbat ekintza egongo dira euren egoitzan (Araba etorbidea): musika emanaldiak, Extremaduraren gaineko bideo emanaldia, antzerkia...

BERGARA

► **Haurren Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. 10:30ean, dantza taldeei harrera egingo diete eta kalejira egingo dute; 11:30ean, alkate txikiei ongi etorria, San Martin plazan; 13:30ean, dantza erakustaldia kaleetan; eta 17:30ean, dantzari guztiek alardea egingo dute, Herriko Plazan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Euskal Herria European** hitzaldia egingo du HZ taldeak martitzenean, hilak 18, udaletxean, 19:00etan.

► **Asmaren gaineko hitzaldia** izango da eguenean, hilak 20, Udaletxe Zaharrean, 19:00etan. Karmele Benito del Valle medikuak egingo du berbaldia.

ARAMAIO

► **Arabako Eskola arteko Bertso Txapelketako** bigarren kanporaketa jokatuko dute bihar, zapatua, Uribarri elkarteak, 21:00etan.

ARRASATE

► **Gipuzkoako Eskola arteko XXIV. Bertso Txapelketako** hirugarren kanporaketa jokatuko dute gaur, egubakoitza, San Viator Txiki gunean, 15:00etan.

► **Jon 23 urte kartzelan, Garratz 20 urte, aski da!** leloarekin kale agerraldia egingo da bihar, zapatua, Seber Altuben, 19:00etan.

► **Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako** plataforma sortu gura du Emakumeen Kontseiluak. Parte hartu gura dutenei dei egiten diete astelehenean egingo duten batzarrera. Emakume Txokoan, 19:00etan.

► **Amnistiaren gaineko berbaldia** egingo da eguaztenean, hilak 19, Monterreren, 19:00etan.

► **Lanbide heziketaren gaineko mahai-ingurua** antolatu du Arizmendi Ikastolak eguenerako, hilak 20, San Viator Txiki gunean, 18:00etan.

BERGARA

► **Irakeko egoeraren gaineko hitzaldia** egingo dute Joseba Iriondo kazetariak eta Imanol Telleria Komite Internazionalistak kideak astelehenean, kultura etxean, 19:30ean.

► **Ipintza institutuko gurasoen elkarteak** ezohiko batzarra egingo du eguaztenean, hilak 19, institutuan, 18:30ean eta 19:00etan. DBH eta DBHoko gurasoak daude deituta.

► **Plazatik Gaztetxera** bertso txapelketako hirugarren kanporaketa izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan. Besteak beste, Manex Agirre aramaioarra lehiatuko da.

Udaberriko
Kanpaina Handia



CARIBE

REP. DOMINICANA. PUERTO PLATA. 06/14tik 06/30ra. 9 egun-7 gau. Occidental Caribbean Hotela***. Dena barne. Hegazkina Madriletik.....

399

Prezioa pertsonako € 66.388 Pta

REP. DOMINICANA. PUNTA CANA. Ekaina. 9 egun-7 gau. Barceló Villas Bávaro Punta Cana Hotela***. Dena barne. Hegazkina Madriletik.....

499

Prezioa pertsonako € 83.027 Pta

FITERO BAINUETXEA

40

Prezioa lagunekoa eta gaueko € 6.655 Pta

150

Lau gauren prezioa € 24.958 Pta

NAFARROA. Maiatza eta ekaina. Astelehenetik ostiralera. Mantenu osoa. Kanpoko igerileku termalerako sarrera barne. 0-2 URTEKO HAURRAK DOAN. 2-12 URTEKO HAURREK %50EKO DESKONTUA



Maite dut!



Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

eskaizta gehiago www.viajeseroski.es



► ANTZERKIA

EGUENEAN HASIKO DA BERGARAKO TXOTXONGILO ERAKUSTALDIA

Bergarako VII. Nazioarteko Helduendako Txotxongilo Mostra abian izango da eguenean, hilak 20, eta hainbat ekintza egongo dira hilaren 23ra bitartean, egunero. Honako ekintzak antolatu dituzte eguenerako: 18:00etan, Pol-Pol tabernan, Jesus Mari Atienzaren argazki erakusketa inauguratuko dute; 20:00etan, erakustaldia bera inauguratuko da, leku berean, Txalapartariak taldearen muntaia batekin. 22:00etan, Argentinako El Chonchon taldeak ikuskizuna eskainiko du gaztetxean. Egubakoitzean, hilak 21, Chapertons talde kataluniarrak emanaldia egingo du Novedades aretoan, 20:00etan; kale-antzerkia hasiko da 21:30ean; eta gaztetxean, Andaluziako Desguace taldeak *El hermano mellizo de Dios* antzeztuko du 23:00etan.

Non: Bergarako hainbat gunetan, eta kalean. **Noiz:** eguenean, hilak 20, eta egubakoitzean, 21. **Ordua:** Hainbat.




Ana Mari Barcena eta Floren Yarza bergararrek joan den zapatuan bete zituzten 50 urte ezkontuta. 1954ko maiatzaren 1ean ezkondu ziren, hain zuzen ere. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik!




Gregorio Idigoras eta Mila Otadui aretxabaletarrek (Larrino auzokoak) eguaztenean bete zituzten 25 urte ezkontuta. 1979ko maiatzaren 12an, hain zuzen ere, ezkondu ziren. Zorionak, bikote, Brasileña dendako lagunengatik!



Jose Martin Arregi bergararrek eta **Gurutze Elorza** aramaiorrek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte Aramaioko Satikutz barreneko Haitzondo txabolan. Zorionak, bikote, familiaren partetik!



Xabier Azula eta Arantza Urrutia arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Leintz Gatzagako Dorletako elizan. Egun zoriontsua pasa eta Brasileria egingo duzuen eztei bidaian asko gozatu! Zorionak, bikote, familiaren partetik!



Idoia Suinaga eta Xabier Telleria bergararrek joan den zapatuan, maiatzak 8, ezkondu ziren Bergarako udaletxean. Zorionak, bikote, familiakoengatik eta lagunengatik!



Eider Iturbe eta Txarli bihar, hilak 15, ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean, eguerdiko 12:30ean. Eztei bidaian Mexikora joango dira. Zorionak, bikote, lagun guztien partetik!

URTEURRENA

Mari Karmen Loiti Kortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an, 12:00etan, Aramaioko San Martin elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mari Cruz Abarategi Egidazu

Lehen urteurreneko meza martitzenean, maiatzaren 18an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Balbina Azkarate Basauri

Lehen urteurreneko meza martitzenean, maiatzaren 17an, 12:00etan, Elgetako Ama Birjina Jasokundearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Timotea Elortza Azkoaga

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Arantxa Unamuno Alberdi

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Laskurain Gallastegi

Jose Altunaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Katalina Garai Iriarte

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an, 13:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gillermi Llano Etxegibel

Aretxabaletan hil zen 2001eko maiatzaren 18an.

Hirugarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an, 12:00etan, Aretxabaletako Parrokian.

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Luisa Azkarate Arrese

Laugarren urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 15ean, 19:30ean, Aretxabaletako Parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	*Izena	Geldotasun	Arazo, gatazka
	Zapore-tsua	Egur	
	Su hartu		
	Ostiapeko		
Ahalmen	*Deitura		
Arre, gris	Dantza izena		
		Litioaren ikurra	
		Elektroia	
Argazki, erretratu			Alproja, zital
Itsas ugaztuna			
		Landa, salbu	
		Zezenko	
Zegoen		Herri nafarra	
Kiratsa dariona		Sorbaldia, bizkar	
Modu atzizkia		Gorputz atala	
Dago		Bizkaiko ikastolak	
	Errepikatuta		Nitrogenoa
	Rhesus faktorea		Interjekzioa
Lau paretako pilotaleku			
Argal			
		Zalantza partikula	

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

DANAK KABITZEN DIRA?

Ama bat gaixorik zeguan oian. Estutu zan, gaiñera, 40ko kalenturia zeukala konturatu zanian. Prisaka bialdu zeban bere alabatu xua Artadi medikuarengana. Alako gizon aundi xari erderaz berba eñ bihar jakuelakuan, medikuaren aurrera eldu zanian, ume txuak, estu eta larri:

- Señor médico, ¡la madre está con 40 en la cama!

Artadik:
- ¡Con 40 en la cama!, ta danak kabitzen die?

LURRA GASTAU

Gerra denboran, bi eibartar, Eibar, Bilbo eta Santander galdu ondoren, bazoiazan, oiñez gaiñera, Asturiasko lurraldietan ziar. Onetan, nagusixenak esaten detsa bestiari:

- I, jarri eñ bihar gaitxuk.

Jarri dira eta gaztiak diño:
- Au dok komerixia. Zapatak be gastau eñ bihar jakuaz.

Bestiak:
- Zapatak diñok? Lurra gastau bihar jakuk.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zenbat abere-buru hiltzen dira Zubillagako hiltegiaren urtean?

Denok jaso dugu bailarako komunikabideen bitartez, Zubillagako hiltegiaren etorkizunaren inguruan dagoen eztabaidaren berri. Bertan Debagoieneko, Debabarreneko eta Legazpia, Urretxu eta Zumarragako ganaduak hiltzen dira. Baina zenbat buru inguru hiltzen ote dira? Asmatuko ote zenuke, adibidez, 2002an zenbat hil ziren?

- 7.618 behi-azienda, 12.334 ardi-azienda eta 380 behor-hazienda.
- 2.120 behi-azienda, 5.333 ardi-azienda eta 212 behor-hazienda.
- 1.324 behi-azienda, 4.222 ardi-azienda eta 154 behor-azienda.
- 725 behi-azienda, 3.112 ardi-azienda eta 104 behor-azienda.

Erantzun zuzena: 7.618 behi-azienda, 12.334 ardi-azienda eta 380 behor-hazienda. Fisurri dagokionez, berri, kopuru hauek izan ziren: 2.189 tona behi, 91 tona ardi eta 66 tona zaldiri.

SOLUZIOAK



M	E	H	E	•	O	E	T
•	T	R	I	N	K	E	T
D	A	B	I	S	•	N	•
•	T	O	•	I	N	A	•
K	I	R	A	S	D	U	N
•	Z	E	N	•	S	U	•
B	A	L	E	A	•	A	T
•	P	O	T	R	E	T	•
N	A	B	A	R	•	L	I
•	K	•	P	E	R	E	Z
•	S	U	T	•	U	T	•
G	O	Z	O	A	•	•	•
•	J	•	•	•	•	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Lanean hainbat aldaketa gertatuko dira; hori dela eta, aurrerantzean ardura gehiago izango dituzu eta, era berean, aisialdirako denbora laburragoa izango duzu. Ondorioz, ohikoa baino haserrekorrago egongo zara.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Atzerriko inbertsioak, negoziak edo ikasketak ez dira irtengo zuk gura zenuen moduan eta arazoak izango dituzu; arazok konpontzeko, bidaiairentzat egin beharko duzu atzerria.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Zure buru-argitasunak eta sen onak lagundu egingo dizute erabaki onenak hartzeko orduan, bizitzako alderdi guztietan hobetzeko. Bestalde, familiar-eko kideren batek arazoak izango ditu, eta zure laguntza beharko du.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Arazoak izango dituzu lagun batekin; izan ere, lagun horren neska/mutil-lagunak esango dizu sexu-harremanak izan gura dituela zurekin.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Ohikoa baino denbora luzeagoa izango duzu aisialdirako, eta denbora hori aprobetxatuko duzu zu pertsona moduan gartzeko jarduerak egiteko. Bestalde, familiarari behar duen arreta eskaini beharko dizu, bereziki, zure semearen/alabaren bati.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Energia soberan duzu, bai eta erabakiak hartzeko gaitasun handia ere; edozelan ere, energia hori ez duzu ondo bideratzen, horregatik ez zaizkizu gauzak ondo iriteten.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Nahiko pozik ibiliko zara; izan ere, diru sarrera handiagoa izango duzu, ezustean. Horrez gain, lanean kontuan hartuko dituzte zure ideak, eta, ondorioz, oso pozik sentituko zara zure buruarekin.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Aniak arazo iturri izango dira; izan ere, zure kontuetan sartzen ahaleginduko dira. Bestalde, irteerak egin beharko dituzu lan kontuengatik, baina ez dira onuragarriak izango. Eta azkenik, sorbaldetan edo besoetan arazoak izango dituzu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Arazo familiarak, komunikazio falta dela-eta; arazo horiek areagotu egin daitezke ez baduzu berehala zerbait egiten.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Egunerokotasunetik irteerako gogoia izango duzu, bai eta beste esperientzia batzuk bizi izateko ere; hori lortzeko, hainbat jardura aurrera eramango dituzu, epe luzeira kaltegarriak izango diren ekintzak. Bestalde, dentistarengana joko duzu, hagine-tako mina osatzeko.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Oso pozik eta zoriontsu egongo zara, dena oso ondo irtengo zaizu-eta. Gainera, barne postasuna izango duzu eta ase sentituko zara; horrekin guztiarekin, gaitasuna izango duzu zuregana joango zaizun jendearekin aholkua emateko eta laguntzeko.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Maitasun kontuetan zalantzak izango dituzu eta bikotekidearengandik urrundu egingo zara. Bestalde, lanean hutsegiteren bat egingo duzu, eta, ondorioz, arazoak izango dituzu nagusiren batekin.



 902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera
Ordutegia: 09:00etatik 21:00etara

001 zozketa

Harpidedunen txokoa

Datorren astelehenean, hilaren 17an, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi!, zeu izan zaitezke!

- 1- Donostiako AQUARIUMera joateko 12 gonbidapen (sartu bakoitzarendako bi).
- 2- GORBEIA-YELMO CINEPLEX zinemetara joateko 8 gonbidapen (sartu bakoitzarendako bi).
- 3- Datorren maiatzaren 21ean, Arriola kultura aretoan izango den "DE RECUERDOS Y TANGOS" dantzaldirako 4 gonbidapen (sartu bakoitzarendako bi).
- 4- "EH SELEKZIOA" bideo jokoa eta selekzioaren bufanda.
- 5- ECRON markako MUSIKA KATEA, zure musika gogoenaz disfrutatzeko.
- 6- "GIPUZKOA ZURE ESKU" Elhuyarren jokoa. Gipuzkoako herriak ezagutzeko modurik dibertigarriena.



1



2



3



6



4



5

+ **uztailean...**

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun guztien artean bidaia zoragarri bat zozketatuko dugu.

adi!

BALDINTZAK

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun direnek **bakarrik** parte hartu ahal izango dute zozketan.

Baldintza bakarra da **harpidedun** izatea.

Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Urte amaierara arteko
harpidetza 20 €

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



'Astebete'

EGUBAKOITZA, 14 / 20:30 eta 22:30



'Derbia'

ZAPATU eta DOMEKA, 15 eta 16 / 19:30



'Iragana gogoratzuz'

MARTITZENA, 30 / 20:30 eta 22:30



'Lanabesak'

MARTITZENA, 30 / 21:15 eta 23:15

UNED-Bergarako III. Uda Ikastaroen eskaintza

Bergarako UNED udari begira jarri da, eta ekainerako eta uztaileko ikastaroen egitaraua aurkeztu du. Bixente Huici idazkariak eskaintza horren berri emango du eta ikasleek euren esperientzia kontatuko dute *Astebete*-n.

Azken derbia, aurrez grabatuta, Agorrosindik

Bergarak eta Mondrak jokatu dute ibarreko bi talderen arteko denboraldiko azken partidua. Mahoneroek behin betiko mailari eutsi nahiko diote; Mondrak, osera, liga ahalik eta goren amaitzeko puntuak eskuratu.

Garraio bideak, bideak eta estraperloa gai hartuta

Ahaztutako bideak izena du *Iragana gogoratzuz* saioan eskainiko dugun erreportajeak. Garai batean ibarrek zein bide eta garraio bide erabiltzen ziren azalduko dugu, eta estraperloan aritu ziren lagun batekin izango gara.

Turismoaren gaineko azoka handia egin dute Bilbon

Porrak gertatzeko unea gero eta gertuago dagoela eta, *Lanabesak* saioko erreportaje aproposa eskainiko digute. Bilboko BECn joan den astean jarri zuten turismo azoka erraldoian izan ziren. Maider Arregik aurkeztua.

TELEBERRIAK

Zilarrezko BDA saria jaso dute ETBko albistegiek

Ikus-entzunezko diseinua-rengatik saritu dute Euskal Telebista, Promax-BDA 2003 Latinoamerikako jaialdian. ETBko albistegietako diseinuaren kalitate grafikoa saritu dute. Alemaniako Velvet enpresak egiten du diseinua, baita ETBko jarraipen piezak ere. Urrezko BDA saria, sail berean, MTV Latinoamerica katearentzat izan da.

'Goenkale'-koak Murtzian, atal berriak grabatzen

ETB1eko *Goenkale* telesailko aktore eta teknikari batzuk Murtziara joan ziren astelehenean, Manga del Mar Menorrera, atal berriak grabatzera. Guti, Tximista eta Teresa joango dira Murtziara, Olga lagun zaharrak gonbidatuta. Halaber, Koldok eta Leonorrek Celia kubatarren ama topatuko dute bertan. Ekainaren hasieran emango dituzte atal berri horiek.

Espainiako Sari Nagusia 1 Formulako emankizun ikusiena

Espainiako telebistaren historian, 1 Formulako saririk ikusiena izan zen joan den domekako Espainiako Sari Nagusia, Bartzelonan jokatu zena, hain zuzen ere. 4.251.000 ikus-entzule eta %37,7ko pantaila kuota lortu zuen 1 Formulako lasterketak. Unerik ikusiena Fernando Alonso helmugara iritsi zenean izan zen: 5.615.000 ikus-entzule eta %43,1eko pantaila kuota.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Maiatzaren 14tik 20ra

EGUBAKOITZA, 14	ZAPATUA, 15	DOMEKA, 16	ASTELEHENA, 17	MARTITZENA, 18	EGUAZTENA, 19	EGUENA, 20
13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri Aretxabaletako alkatea izan genuen geurean. 16:00 Sarrera doan Oñatiko Musikegunen gaineko erreportajea. 16:30 Iluntzean Erramun Martikorena elkarrizketatu zuen Aintzane Gardokik. 17:00 Astebete 17:30 Soinuz blai 18:00 Txintxaun 18:30 Iluntzean 19:00 Sarrera doan 19:30 Futbol: Bergara-Mondra Agorrosindik, denboraldiko azken derbya jokoan.	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri Aretxabaletako alkatea izan genuen geurean. 16:00 Sarrera doan Oñatiko Musikegunen gaineko erreportajea. 16:30 Iluntzean Erramun Martikorena elkarrizketatu zuen Aintzane Gardokik. 17:00 Astebete 17:30 Soinuz blai 18:00 Txintxaun 18:30 Iluntzean 19:00 Sarrera doan 19:30 Futbol: Bergara-Mondra Agorrosindik, denboraldiko azken derbya jokoan.	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iragana gogoratzuz 21:00 Gaurkoak 21:15 Lanabesak 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iragana gogoratzuz 23:00 Gaurkoak 23:15 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Iragana gogoratzuz 14:30 Berriak 15:00 Lanabesak 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
22:30 Astebete	19:30 Futbol		21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Iragana gogoratzuz	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Gipuzkoa osoan eta ibar honetan, eraikuntzaren greba ehuneko ehuneko ia ez bada ere, uste dut sektorea ia oso-osorik gelditu dela".

Josu Galarraga / ELAko ordezkarria 'Berriak' (2004/05/12)



"Arlabango mendatea ez da sekula zulatu; beraz, erronka eta proiektu garrantzitsua izango da Eibar-Gasteiz autobidearen eraikuntza tarte horretan".

Joxe Juan Glez de Txabarri / Diputatu nagusia 'Berriak' (2004/05/12)

Goiena Telebista zuntz optikoan

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren eta Euskaltelen artean sinatutako hitzaremenari esker, **Euskalteleko bezeroa bazara, Goiena Telebista kablez ere ikus dezakezu S11 katean (231,25 MHz)**





Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

UNITED COLORS
OF BENETTON.



Euskal Okela, Eusko Labela duen bakarra



Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

- ANTZUOLA**
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14
- ARAMAIO**
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8
- ARRASATE-MONDRAGON**
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7
- JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20
- AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10
- AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12
- KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1
- BERGARA**
ANDRES MUJIKHA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5
- BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6
- ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12
- ESKORIATZA**
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11
- OÑATI**
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5
- TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2
- GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2
- SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8



EUSKO LABELA DUEN BAKARRA

Euskal Herrian dauden haragi mota eta marka desberdinen artean Euskal Okela bereizten da. Ez dago besterik hau bezain zorrotza denik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baititu.



Berau da bakarra Euskal Herritik kanpo jaiotako animaliak onartzen ez dituen, eta modu naturalean eta jaki nobleekin soilik elikatzea behartzen duena. Hasieratik amaierara prozesu osoa kontrolatuz

Benetakotasun Etiketa

Atzeskua

USOA AGIRRE

Eulali Elgarresta/ Santa Marina parrokiako katekista

Oraindik ere, jende asko joaten da katekesira?

Bai, bai. Oraindik ere indar handia du elizan jaunartzeak eta jende asko etortzen da jaunartzea egiteko katekesira. Santa Marinako parrokian 190 neska-mutiko ditugu aurten, sei urtetik hamabira bitartekoak. Bataiatzen diren umeen %10ek ez dute jaunartzea egiten, eta behin jaunartzea egindakoan, asko jaisten da katekesira etortzen diren umeen kopurua.

Hori zergatik gertatzen dela uste duzu?

Behin jaunartzea egindakoan beste aktibitate batzuetara joaten dira umeak: kirola, musika... Orduan, jaunartzea egin dutenen erdia gelditzen zaigu katekesian.

Zerbait aldatu da orain 35 urteko jaunartzeetatik gaur egunekoetara?

Urte hauetan jaunartzeak ez du aldaketa handirik izan. Gizartea aldatu den heinean jaunartzearen ospakizunak ere aldaketa izan du. Baina, funtsean, ez da ezer aldatu.

Ez dira opari gehiegi egiten orain?

Ez dut uste. Lehen ere opari asko egiten ziren jaunartze egunean. Kontua da opariak aldatu egin direla; orain, poltsikoko telefonoak eta horrelakoak oparitzen zaizkie umeei.

Katekistok, irakasleen moduan, irakasten ikasi beharko duzue.

Gure parrokian beti saiatu izan gara geure burua gertatzen, garai berrietara egokitzeko asmoz. Gipuzkoako Elizbarrutian ikastaroak antolatzen dituzte, eta duela gutxi egon ginen Donostian ikastaro horietako batean. Hiru egunean 250 katekista bildu ginen, haurrei otoitz egiten nola irakatsi ikasten.

Oraingo umeek ez dute otoitz egiten, ala?

Hain zuzen ere, han ikusi genuen umea ere gai dela otoitz egiteko. Lehengo umeak eta oraingoak ez dira berdinak, eta gaur egungo horiek hezten ikasi beharra dago.

Labur esanda, zer irakasten da katekesian?

Elizbarrutiko gaiak jorratzen ditugu, eta horiekin, Jesusen jarraitzaile izaten erakusten diegu. Umeei beti geratzen zaie barruan zerbait: batzuek garatu egingo dute gero hori; beste batzuek, ordea, ez.

Zer eman dizu katekesiak hainbeste urtean?

Norbera asko aberasten da eta umeak berak ere asko ematen du. Gainera, gure burua prestatzen ere saiatzen gara, gero umeen galderi ahalik eta ondoen erantzuteko.

Jende berririk badago katekesia emateko?

Egia esan, aurten izugarriko zorrea izan dugu. Hiru katekista berri ditugu Santa Marinako parrokian eta asko eskertzen diegu honetan hasi izana. Izan ere, eurengeatik ez balitz, kurtso batzuk ezin emanda geldituko ginen, eta ume batzuk katekesirik gabe.



“Oraindik ere indar handia du jaunartzeak elizan. Bataiatutakoen %90ek egiten dute”

“Elizbarrutiko gaiak jorratzen ditugu katekesian, eta horiekin, Jesusen jarraitzaile izaten erakusten diegu umei”

“Katekista berriak ditugu gure parrokian; asko eskertzen diegu honetan hasi izana”

► Bergara / 64 urte / Katekesia ematen du Bergaran

PIPERRAUTSA

Jesus

Berandu ezagutu nuen Jesus Larrañaga. Bera jubilatuta eta gero. Eta ezin dut esan harreman estua izan genuenik. Oso ondo gogoratzen dut, hori bai, berak gonbidatuta biok egin genuen bazkaria, duela hiru bat urte. Liburu berria ari zen prestatzen, bestela sortu eta kooperatiba bihurtu ziren enpresez. Ormaiztegi Irizar zen bat, eta nire aitaren kontuak jakin nahi zituen. Otordu atsegina, inondik ere.

Hil berri denean, ez dut Jesus laudorioz estali nahi. Ez dut gogoko hilak neurririk gabe goresteko joera. Hobe genuke loreen laurdena bizien artean banatzea. Baina larunbateko hiletan pentsatu nuen ari ginela agurtzen ULGORreko L-a, eta galduak zirela aurretik U-a eta OR-etako bat. Bost pertsona ibarrekoak izan ziren euskal enpresa talde indartsuenaren sortzaileak. Gainera garatu zuten formula berritzailea, lankidetzara, munduan erreferente bihurtu dena. Eta hori guztia egin zuten soldatpean, dirutza metatzeari uko eginda. Zer gehiago behar da hemen ohorea lortzeko?

Pertsona handizat dauzkat nik ULGORreko bostak, Jesus ere tartean. Eta, berriz, hauen fama txikiagoa da alproja askorena baino. Benetan, zerbait ez dabil oso ondo gurean.

Baina, adi. Bizirik eta kementsu ditugu boskoteko G-a eta beste OR-a. Zergatik ez diegu bi hauei luzatzen, entzun dezaketean bitartean, Debagoiena, Gipuzkoa eta Euskal Herri osoaren esker ona?

MIKEL IRIZAR

BERRIAK

Gertu-gertuko informazioa



Ikustekoa!

Egunero:
14:30, 15:30
eta 20:00, 21:00, 22:00, 23:00

Aurkezleak:
Gorka Etxabe eta Deiane Arrieta

